



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea

Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación

POLITIKA ZIENTZIA ETA KUDEAKETA PUBLIKOKO GRADUA

2015-2016 IKASTURTEA

GOBERNU IREKIA ETA PARTAIDETZA ELEKTROKINOA EUSKADIN

EGILEA: IKER LAKA BARANDIKA

ZUZENDARIA: AINHOA NOVO ARBONA

2016ko maiatzaren 31n.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	3
2. MARKO TEORIKOA	7
2.1 Zer da gobernu irekia?	7
2.2 Parte-hartzea gobernu irekian	14
2.2.1 Herritarren partaidetzarako joera	14
2.2.2 Partaidetzatik e-partaidetzara	16
2.2.3 E-partaidetzarako tresnak	18
2.2.4 Parte-hartzea bermatzeko aurrebaldintzak	22
2.2.5 Parte-hartze Eskema	25
2.3 Hipotesiak	31
3. METODOLOGIA	32
4. GOBERNU IREKIA EUSKADIN	34
2.2.1 Aurrebaldintzak: gardentasuna eta eten digitala Euskadin	34
2.2.2 Irekia plataformaren analisisa	38
5. ONDORIOAK	57
BIBLIOGRAFIA	61
ERANSKINAK	65

1. SARRERA

Krisi garaian murgildurik gaude eta ekonomiaz haratago, eremu politiko eta sozialean ere aldaketa sakonak ari dira gertatzen, bakoitza bere erritmoan. Horren eraginez, erakunde publikoei aldaketa eta erronka handiak planteatzen ari zaizkie (Froni, 2014). XX. mendean zehar eta egundaino mendebaldeko herrialdeak demokrazia ordezkatzailerako sisteman antolatu izan dira. XXI. mende honetan, baina, sistemari higadura zantzu nabariak azaleratu zaizkio ustelkeria kasu eta koiuntura ekonomikoaren beraren eraginez (Xarxa d'Innovació Pública, 2014). Sistema ordezkatzaileraren defizitetako bat herritarren parte-hartze zuzenari uzten dion leku txikia da, izan ere, *"(...) herritarrak politika publikoen onuradun eta hartzaile soiltzat jotzen dira; pertsonak izaki heldugabetzat jotzen dira, (...) guztien ongian pentsatzeko gai ez direnak"* (Froni, 2014: 40). Hauteskunde-programak ere ez dira erabat betetzen eta horrek, gizartean sorburua duen botere publikoaren ahultzea areagotzen du Bojórquezen (2012) gardiz. Gobernu eta administrazio publikoen baitan, krisiak zabaldu duen pitzaduratik zabalpen, gardentasun, kontu emate, partaidetza eta gobernu jardunbideko emaitzen ebaluazio eskaera ugariak ari dira sortzen (Oszlak, 2013).

"Azken hamarkadatik aurrera, aipatutako krisiaren ondorioz, diskurtso politikoak eta erakunde publikoek eboluzio baten premia planteatu zuten, nolabait zilegitasun handiagoa berreskuratzeko asmoz" (Froni, 2014:32-33). *"Beraz, erakundeek rola bera birpentsatu eta birdefinitzeko funtsezko erronkaren aurrean gaude (...) Gero eta erakunde gehiago hasi dira gizarte eragileengana hurbiltzen elkarrekin eraikitzeko ikuspuntu batetik; (...) eremu partekatuagoetan jarduten"* (Froni, 2014: 41).

Aldaketa tresnatzat gobernu irekia *"fenomeno disruptiboena bezala nabarmentzen da (...) egungo praktika politiko, kudeaketa publiko eta demokraziaren indartzearen eztabaidari dagokionez"* (Ramírez-Alujas, 2012: 15). Gobernu irekia ikertzearen arrazoi nagusia gobernuen demokratizazio eta legitimaziorako bideak jorratzea da. Horren harira, helburua gobernuaren izaera estrukturala lausotzea da gizarteko sektore guztiak

kontuan edukiko dituen plataforma eredu baterantz (Ruvalcaba, 2015). Gobernu irekiaren ereduak sistema ordezkatzaillearen legitimitatea hobetzen laguntzen du herritarrek erakundeekiko duten konfiantza handituz (Fundación Telefónica, 2013). Antolatze-kultura eta kudeaketa eredu administrazioetan eraldatzeko funtsekoak dira 2 lidergo: politikoa, aldaketek dakarten erresistentziari aurre egiteko eta teknikoa, berrikuntza sustatzeko inplikazioan lagunduko duena. Gobernu irekiaren kultura berritzailea elkarrekiko ikasketan oinarritzen da. Horretarako propio sorturiko kanalen bidez, ideien zuzeneko ekarpena egiten da egitura nahiz hierarkien tarteratzea ezabatuz. (Ramírez eta Salvador, 2015). “(...) *hierarkikoa baino elkartzaileagoa den lidergoa (...)*” beharrezkoa dela azpimarratzen du Graells-ek (2012: 485). Zentzu honetan Oscar Oszlak-ek (2013: 6) hurrengoa dio: “(...) *funtzionario politiko nahiz administrari iraunkorrek arau berri hauen (gobernu irekiarenak) arabera funtziona dezaten, gobernu maila altuenaren borondate politiko handia beharrezkoa da ezarri ditzan. Aspaldiko egitura eta erabakitze mekanismoak alboratzeko adina determinazio maila (...)*” behar da. Nicola Foroni-k (2014: 47) ere konpromiso politiko eta koherentzia instituzionalaren beharra azpimarratzen du: “*Ezin diegu herritarrei inplikazioa eskatu, baldin eta gure erakundeetako langileak inplikatzen ez badira*”.

Egundaino gobernu irekiari buruz egin diren ikerketen gehiengoak (%54) metodologia kualitatiboaren hautua egin dutela ondorioztatzen du Ruvalcavaren (2015) «El estudio del Open Government: Hacia una categorización de la literatura internacional» azterlanak¹. Murrizak dira metodologia misto (19%) eta kuantitatibo (13%) bidez egindakoak. Hala ere, autoreak azken hauen areagotzea aurreikusten du etorkizuneko ikerketetan. Gai hau jorratu duten artikulu gehienen jatorria Amerikako Estatu Batuetan (%29,6) dago, diferentzia handia ateraz bigarrenak diren Herbehereei (%8). Ikerketak zentratzen diren gobernu mailari dagokionez, %38 batek maila nazional/federal delakoan aztertzen du gobernu irekia, %26 batek herri/udalerrri mailan, %5 batek erregio/estatu mailan eta %4

¹ 3 aldizkari zientifikoko 136 artikulu erabiltzen ditu; 2011ko urtarrila eta 2014ko abendu bitartekoak, guztiak ingelesez idatziak.

batek maila supranazionalen. Maila ezberdinak uztartzen dituzten kasuak %1 dira. Azkenik, Ruvalcabak artikuluetan hizpide den gai nagusia zein den aztertzen du. Gaiak gobernu irekiaren 3 dimentsioen arabera bereizten ditu. Emaitzek adierazten dute artikuluen %36 batek gardentasuna lantzen dutela, %30 batek parte-hartzea, %27 batek dimentsio bat baino gehiago uztartzen ditu eta elkarlana %7 batek soilik.

Testuinguru horren baitan, ikerketa honek gobernu irekiaren nondik norakoak ezagutu eta Euskadiren kasu konkretuko egoera analizatu nahi du, batez ere, parte-hartzearen dimentsioa jorratuz. Jada 6 urte pasa dira Eusko Jaurlaritzak 2010. urtean gobernu irekiaren ereduaren aldeko apustua egin zuenetik. Denbora tarte horrek Euskal Autonomia Erkidegoaren gobernu irekiko politikak aspektu ezberdinetatik analizatzeko perspektiba egokia eskaintzen du, lehenengo balorazio orokor bati begira. Politika hauek «Irekia» plataforma birtualaren bitartez bideratu ditu Jaurlaritzak, batik bat, partaidetza elektronikoen tresnak baliatuz. «Irekia» web ataria nazioarte mailan hainbatetan gorai patua eta arrakastako kasu bezala aztertua izan da; espainiar Estatuan erreferente bat delarik.

Horrenbestez, ikerketa honek 2 ekarpen nagusi plazaratu nahi ditu. Alde batetik, gobernu irekia eta bere parte-hartze dimentsioaren argitze kontzeptual bat burutzea, ikuspuntu teoriko eta egungo eztabaida akademikoari erreparatuz. Bestetik, Euskadiko esperientzia konkretuari buruzko corpus mugatua handitu eta, bide batez, gutxi ikertu den erregio/estatu mailari bultzadaxo bat eman. Horretarako, 3 helburu orokor eta horiek lortzeko hainbat espezifikoko planteatu dira. Lehenik eta behin, gobernu irekia zer den definitzea izango da helburua. Hau garatzeko, kontzeptuaren bilakaera historikoa erreparatu; gaurkotasuneko beste terminoetatik bereizi; funtsezko ezaugarriak identifikatu; gobernantza eredu bezala kokatu; aldaketarako duen potentzialtasuna ezagutu; eta jasotzen dituen kritika eta eztabaida akademikoak mahaigaineratuko dira. Bigarren helburu orokorrak gobernu irekiaren ereduaren parte-hartzea zelan egituratzen den aztertzea planteatzen du. Galdera honi erantzuteko, gaur egun herritarren parte-hartzeko joera ezagutu; partaidetza tradizioaletik

abiatuta e-partaidetza definitu; IKTek, e-partaidetza posible egiteko, zein tresna eskaintzen dituzten aztertu; kalitatezko parte-hartze batek eskatzen dituen aurrebaldintzak ezagutu; eta prozesu parte-hartzaile ereduak deskribatzeko eskema bat aztertuko da. Azken helburu orokorrak gobernu irekiaren bidezko e-partaidetzaren nondik norakoak Euskadiren kasu konkretuan ezagutzean bilatzen du. Horretarako, aurrebaldintzen bidetik, 2010 eta 2015. urteen bitartean, gardentasuna eta euskal herritarrek Jaurlaritzarekiko duten konfiantza maila erlazionatu eta eten digitalak Euskadin izan duen eboluzioa ezagutu; Eusko Jaurlaritzaren «Irekia» plataforma analizatu; plataforma honetako prozesu parte-hartzaileen eredia deskribatu; eta Irekiaren bidez 2015eko urtarrila eta 2016ko maiatza artean herritarrek helarazten dituzten eskaerei eta Jaurlaritzaren erantzun-denborei buruzko analisisa egitea zehazten da.

2. MARKO TEORIKOA

2.1 ZER DA GOBERNU IREKIA?

1957an agertzen da lehenagoz gobernu irekia terminoa idatzizko testu batean, Wallace Parks-en «*The open government principle: applying the right to know under the constitution*» artikuluan, hain zuzen ere. Autoreak ez du testuan zehar gobernu irekiaren inongo definiziorik egiten, baina testuinguruarengatik argi geratzen da Parks-ek gobernuen informazio eta kontu ematearekin lotzen duela kontzeptua (Gascó, 2014).

Teoria politiko eta eztabaida akademikoari dagokienez, gobernu irekiaren kontzeptua ez da oso berria. 1999an, Weir eta Beetham-ek oinarritzko zutabetzat jo zuten demokrazia ordezkatzaillearen elementu sostengatzaileak aipatzerakoan: Hauteskunde-prozesu libre eta garbiak; gobernu ireki, garden eta erantzulea; askatasun zibil eta politikoen bermea; eta gizarte demokratiko edo zibila. Chapman eta Hunt-ek eztabaidak Erresuma Batuan izan duen eboluzioa aztertu zuten. Hauen arabera gobernu irekiak, jatorriz, administrazioari buruzko informazioa herritarrei zabaltzeko ahaleginei egiten zien erreferentzia: sekretu ofizialen inguruko legeen erreforma, informazio publikorako sarbidea, datu pertsonalen babesa eta gobernu-jardueraren kontu ematea iritzi publikoaren erabilgarritasunerako. Hasierako ikuspegi hau 70eko hamarkadatik 90ekora izan zen nagusi. Geroago, gardentasun (sektore publikoaren accountability²-ari lotuta) eta irekiera (gardentasunaz haratago, eskura duten informazioa erabiliz, herritarrek politika publikoen formulazioan parte-hartzeko duten aukera) terminoen arteko bereizketa egitea proposatu zen (Ramírez-Alujas, 2012).

Egun ere gobernu irekiaren definizioa ez da guztiz argia, izan ere, «*gaurkotasuna duten «gobernu ona» edota «administrazio elektronikoa» bezalako terminoekin nahastu (...) izan da*» (Ramírez-Alujas, 2012: 15). Cruz-Rubio (2014) ikerlariak ezezekoan egiten du gobernu irekiaren

² Kontu ematea.

definizioa, eta era honetara adierazten du gobernu irekia ez dela gobernu elektronikoa ezta datu irekitzea ere ez, gobernantza elektronikoa baino gehiago dela dio. Gobernu irekiaren mugak ere ezartze aldera, Ruvalcabak (2015), Calderón eta Lorenzo aipatuz, gobernu irekia eta administrazio elektronikoaren arteko ezberdintasuna lantzen du. Era honetara, administrazio elektronikoak gizartea eraldatzen ez duela azpimarratzen du, baizik eta herritarren bizitza errazago egiten duela; gobernu irekiak, aldiz, aldaketak dakartza balioetan, demokrazian, legitimitatean eta kudeaketa publikoaren eraikuntzan.

Gobernu irekiak erakunde publiko eta gizartearen arteko harreman molde berriak bilatzen ditu bere dimentsio ezberdinen bidez, administrazio elektronikoaren ezaugarri teknologikoa ahaztu barik (Ramírez eta Salvador, 2015). *"Zalantza gabe, teknologia eredu honen aliatu nagusia da. Gizateriaren historia osoan zehar, teknologia aldaketa kulturalaren funtsezko faktore izan da"* (Oszlak, 2013: 5). Kontzeptuaren egungo adierak bere baitan ditu administrazio elektronikoaren dimentsioak. *"(...) gobernu irekia gobernu elektronikoaz baliatuz eraikitzen da, bere aurrerapen teknikoetan oinarritzen den heinean"* (Gascó, 2014: 21).

"Gobernu elektronikoko estrategiak, (...) barrutik kanporakoa, aldebakarrekoa (... non herritarra amaierako erabiltzaile/onuraduna den ...), zerbitzu publikoetan tresna teknologikoen erabilera eta aplikazio ia mekanikoan datza (...); gobernu irekiak, ostera, zabalpenean oinarritutako eraldaketa paradigmatico bat du xede, teknologiaz baliatzen bada ere" (Ramírez-Alujas, 2012: 20).

Interpretazio ugarrira zabaldua dagoen kontzeptu poliedriko bezala definituko du Martínezek (2012) gobernu irekia, gobernu eta herritarren arteko harremanari heltzen dion alternatiba. Denboraren poderioz, esanahia nabarmen joan da aldatzen eta hortik ere erator daiteke anabasa (Dupuy eta Pérez, 2012). Hala ere, badago nolabaiteko adostasun bat kontzeptua artikulatzen duten 3 dimentsioetan Gascók adierazi bezala (Ramírez eta Salvador, 2015):

- a) Gardentasuna: Erakunde publikoen jarduera ezagutu eta kontrolatzeko datuen irekitzean datza. Informaziorako sarbidea horretarako propio egindako erregelamenduen bidez bermatzen da. Errazten diren datuak berrerabilgarriak dira, formatu estandarrekoak.
- Dimentsio honek «open data» deritzon estrategia barnebiltzen du, izan ere, gobernuak herritarrei kontuak ematen dizkie informazio eta datu publikoen zabaltzearen bitartez. (Ramírez-Alujas, 2012).
- Herritarren parte-hartze eta elkarlanak ez luke zentzurik izango gardentasunik ez balego. Gobernuak gizarteko agenteen kontrola bere funtzionamendu egokirako ezaugarri bezala ulertzen du eta, hala balegokio, kudeaketa ezegoki baten aurrean erantzukizunak gain hartzen ditu (Xarxa d’Innovació Pública, 2014).
- b) Parte-hartzea: Herritar, enpresa, eta elkarteen inplikazioa eskatzen du politika publikoen zikloan zehar. Calderón aipatuz, dio Internetek partaidetza moduak eraldatu dituela herritar batek zuzenean kontakta dezakeelako gobernariekin eta alderantziz. “(...) *bideak erraztu behar dira administrazio publikoak herritarren ezagutzaz, ideiez eta esperientziaz aprobeitza daitezen*” eta horretarako, baliagarria da «open process» estrategia. Hau da, “*sare sozial eta plataformen erabilera herritarren partaidetza bideratzeko*” (Ramírez-Alujas, 2012: 19).
- Partaidetza bide onetik joan dadin ezinbestekoa da alde aurretik informaziorako, teknologiarako eta inplikaturiko aktore guztien ezagutzarako sarbidea ziurtatzea. Administrazio irekiak agente sozial ezberdinak aktiboki entzun, inplikatu, ideiak jaso eta hauen arteko eztabaida sustatzen du (Xarxa d’Innovació Pública, 2014).
- c) Elkarlana: Administrazio barneko eta kanpoko aktore ezberdinen arteko zeharkako kolaborazioa du helburu. Aktore ezberdinen ardura aktiboaren bidezko politika publikoen ko-sorkuntza.
- Era berean, administrazio publiko diferenteen arteko lankidetzak koordinatua ahalbidetzen du (Ramírez-Alujas, 2012). Honi interoperabilitatea deitu zaio.
- Kolaboraziotik politika publikoak “(...) *sektore publiko eta pribatuak modu bateratuan finantzatzeko erak aurkitu (...)*” behar dira (Xarxa d’Innovació Pública, 2014: 9).

Dimentsio hauek ordena sekuentzial batean ulertu behar dira, hau da:

"Dirudienez gardentasuna parte-hartze/elkarlanaren aurretikoa da. Ideia honek gobernuek gardentasunaren alde egin duten apustu handia justifika dezake (...) Akademiak ere enfasi handia jarri dio harreman honi (...) Adibidez, Villoriak dio deliberazioan eta denen arteko erabaki hartzean adierazten den herri partaidetza lortzeko, beharrezkoa dela gardentasun maila altuak izatea" (Gascó, 2014: 16-17).

3 dimentsio horietatik abiatuta, Gascók (2014: 19) hurrengo definizioa proposatzen du gobernu irekiarentzako:

"Gardentasuna, kontu ematea, parte-hartzea eta elkarlana sustatzearekin balio publikoa maximizatzea helburu duen gobernu eredu, teknologiaren erabilera intentsiboaren bidez, ko-gobernuagatik apustu eginez eta, zentzu horretan, gobernu eta gobernatuen arteko botereari oreka gehiago emango dion elkarriketarako zabalduago dagoen gobernatzeko modu bat ezarriz, ko-erantzule diren herritarrei ahots gehiago ematea inplikatzeko duena".

Egun, «Open Government Partnership» izena duen ekimen multilateral bat martxan dago gobernuen gardentasuna, herritarren jabeakuntza, ustelkeriari aurre egin eta gobernantza ahalmentzen duen teknologiak indartzeko sortutakoa. 8 estatu sinatzaileekin sortu zen ekimen honek dagoneko 69 estaturen parte-hartzea du, besteak beste espainiar Estatuak. Parte-hartzeko ezinbestekoa da konpromiso adierazpen bat sinatzea. Honetan ere gobernu irekia praktikan nola ulertu eta zehazten den adierazten da. Hauek teorikoki ezarri diren dimentsioekin bat datoz: 1. Gobernuaren ekintzei buruzko eskuragarri dagoen informazioa areagotu, 2. Herritarren parte-hartzea bultzatu, 3. Administrazio publikoan zerbitzatzen dutenen artean zintzotasun profesionala, 4. Teknologia berrien erabilpena herritarren sarbidea hobetu eta kontrola errazteko.

Gobernu irekia gobernantza kontzeptu zabalaren barnean txertatzen dela esan daiteke, hala ere, badira Ruvalcaba (2015) bezalako autoreak

governantzaren ideiaz haratago doala diotenak. Gobernantzak kudeaketa publikoa gizarteko beste aktoreei zabaltzea inplikatzeko du. Beraz, gobernuaz gain herritar eta enpresa zein elkarteak bezalako agente sozioekonomikoek hartuko dute parte politika publikoen prozesuan. Arazo sozialen konplexutasun gero eta handiagoak bultzatuta, gobernuak zentraltasun galera pairatu dute eta horrek euren jarduteko era tradizionalen berrikuntzak eskatzen dizkie. Gobernantzak barnebiltzen dituen eredu nagusiei erreparatzen bazaie, gobernu irekiak gobernantza kolaboratiboarekin egiten du bat. Autorearen arabera sare-gobernantza, gobernantza irekia edo gobernantza demokratikoa ere deitua izan dena aktoreen arteko lankidetzaren moduetan oinarritzen da. Harremanak horizontalki artikulatzen dira, ez dago aktore menperatzailerik, eta debiliberazioaren bidez elkar eragiten dute. Elkarrekiko interdependentek dira, baina operatiboki autonomoak. Gobernantza kolaboratiboa eredu normatibo ideal bat da, non aktoreak anitzak diren eta berdintasuneko baldintzetan diharduten nolabaiteko marko instituzionalizatuan. Gobernantza eredu honek arloko (osasuna, ingurumena, hezkuntza...) politika publikoko sare espezifikoak sortzen ditu, eta horietan hartzen dira erabakiak. Sare-gobernantza burokraziaren zurruntasuna eta merkatuak sortzen dituen desberdintasunak gainditzeko eredu bezala defendatu da (Subirats, Parés eta Blanco, 2009).

Sare-governantzaren kalitate demokratikoari dagokionez, Corojan eta Camposen (2011) arabera gobernuen jarduerak ebaluatzea diru publikoaren xahutzea ekidin, ustelkeria aldatu eta erabaki politikoaren ikuskeria bermatzen du. Gobernu irekiak erakunde publikoen kontu emate prozesuak errazten dituen heinean, demokrazia indartu eta honen kalitatea hobetzen duela ondorioztatzen dute beraz. Balio demokratikoetatik haratago doan aldaketa suposatzen du, gobernuen zabaltzeak ere herrialdeen errendimendu ekonomikoa zein merkatuen funtzionamendua hobetzen duelako; Subirats eta beste batzuek (2009), aldiz, iritzi ezberdina plazaratuko dute honi buruz. Gobernantza sareen kalitate demokratikoa balioesterakoan, hauek politika publikoetan herritarren parte-hartzea sustatzeko duten gaitasuna da, beraien ustetan, kontuan eduki beharreko irizpiderik garrantzitsuenetakoa. Zentzu horretan gobernantzari egozten

dioten kritika nagusia kontsentsuzko logikaren bidezkoa izatearen beharra da. Kontsentsuak aho bateko adostasuna eskatzen du, hau da, adostasun eza nahiz kontsentsu horrekin bat egiten ez duten aktoreak mekanismotik kanpo uztea. Rancière-kin bat eginez, azpimarratuko dute kontsentsuaren izenean demokraziaren funtsezko zutabeetako bat ezabatzen dela, gatazka.

Administrazio publikoen funtzionamendura IKT³ak barneratzea, prozesuen automatizazio soil batera mugatu da kasu askotan eta ez du eraldaketa handirik suposatu gobernuen jardunbidean. Honen aurrean gobernu irekiaren kontzeptuak indar handia hartu du, lanabes egokia baita administrazioen antolakuntza eta harreman moduen aldaketak bultzatzeko (Ramírez eta Salvador, 2015). Azken urteetan gobernu irekiak hartu duen bultzadan zerikusi zuzena du Barack Obamaren gobernuak: "2009ko urtarrilaren 21eko Gardentasun eta Gobernu Irekiari buruzko Memorandumaren⁴ promulgazioak mugarri birsortzaile bat markatu zuen, mugimenduari bultzada berri bat eman ziona teknologiaren erabilera intentsiboaz baliatuz (...)" (Ramírez-Alujas, 2012: 18). Momentu horretatik aurrera, mundu guztiko administrazio publikoek herritarrekin dituzten harremanak eraldatzeko ekimenak jarri dituzte martxan gobernu irekiaren bidetik (Gascó, 2014).

Gaur gobernu irekia ulertzeko joera nagusia «Obamaren hirutasunean» (gardentasuna, parte-hartzea eta elkarlana) eta teknologia berrien erabileran oinarritzen den arren, badira gutxieneko adostasun horrekin guztiz bat egiten ez duten ikuskerak ere:

- a) Alde batetik eta Gascó (2014) dioen moduan, parte-hartze eta elkarlan dimentsioen arteko eztabaida, 2 zentzutan, planteatzen duen ikuskera dago. Zenbait autoreren arabera ez dago dimentsio hauen arteko bereizketa argirik egiterik. Hauen ustetan baliokide gisa erabili daitezke eta ondorioz, Meijer eta beste batzuek adierazi bezala, bitara mugatu dituzte gobernu irekiaren printzipioak: gardentasuna

³ Informazio eta Komunikazioen Teknologia, teknologia berriak.

⁴ Memorandum on Transparency and Open Government (Barack Obama, 2009): https://www.whitehouse.gov/sites/default/files/omb/assets/memoranda_fy2009/m09-12.pdf

(ikusgaitasuna) eta parte-hartzea (ahotsa). Honen kontra 2 dimentsioen arteko bereizitasuna defendatzen duen ikuspuntua dago. Autore batzuen arabera partaidetza herritarrekin soilik erlazionatu behar da eta elkarlana, berriz, herritarrez haratago gizarte zibilean dauden gainontzeko aktoreekin, administrazio barneko nahiz kanpokoak izan. Telefónica Fundazioko (2013) txostenak ere beste bereizketa bat plazaratzen du. Parte-hartzea erabaki hartze prozesuei eta politika publikoen diseinuari ekarpenak egitearekin lotzen du eta elkarlana, aitzitik, politika edo plan jakin baten inplementazioarekin.

- b) Bestetik, gobernu irekia, ezinbestean, administrazio elektronikoa eta teknologia berriei lotuta ulertzea zalantzan jartzen duen ikuskera dago. *"IKTak ez dira ezinbesteko baldintza kudeaketa eredu beratu ezartzeko. Tresna informatikoen beharrik gabe herritarren parte-hartze eta inplikaziora irekiko den gobernu batean pentsa liteke. Edozein kasutan, teknologiak (...) interakzio moduak biderkatu ditu"* (Oszlak, 2013: 4). Ruvalcabak (2015) ere gobernu ireki eta IKTen arteko harremana eztabaidagarria dela esango du. Hala ere, teknologiak ahalbidetzen dituen elkarlan balioak eta partaidetza dinamika berriak zein gardentasunari eskaintzen dion erakusleioa azpimarratuko ditu. Gobernu irekiaren egungo adieran, Internet ezinbesteko baldintza dela ere ulertzen du Martínezek (2012). Zentzu horretan administrazio publikoek, enpresa pribatuekin elkarlanean, herritarren gehiengoak teknologia berrietarako sarbidea izan dezan lan egin behar dute bere iritziz.

Laburbilduz, esan daiteke gobernu irekiaren kontzeptua antzeko oinarriekin bat egiten duten beste tresna eta estrategiekin nahasten dela zenbaitetan. Hala ere, gobernu irekiaren bereizitasun nagusia gobernu eta administrazioa eraldatzeko eredu iraultzaile bat dela da, aldaketa helburu duen heinean. Prozesu hauek aurrera eramateko, estrategia berri honek hiru dimentsio nagusi ditu: gardentasuna, parte-hartzea eta elkarlana. Sarreran aipatu bezala, Gradu Amaierako Lan honek gobernu irekiaren bigarren dimentsioa, hau da, parte-hartzea izango du ikerketa helburu.

2.2 PARTE-HARTZEA GOBERNU IREKIAN

Gobernu irekiaren estrategia berritzaileak herritarren parte-hartzea ulertzeko eta gauzatzeko modu ezberdin bat bultzatzen du. Modu horretan bakarkako parte-hartzea errazten du eta teknologia berriez baliatzen da. Hau jorratzeaz gain, atal honetan Euskadin gobernua irekiaren estrategia neurtzeko baliagarriak izango diren parte-hartzeko tresnak eta hauek bideratzeko erak jasoko dira.

2.2.1 HERRITARREN PARTAIDETZARAKO JOERA

Humanista zibiko ingelesek definitzen zuten «civic virtue» delakoak bi ezaugarri barnebiltzen ditu: batetik, ongi publikoak beharrezkoa duena bereizteko gaitasuna, eta bestetik, honen arabera jarduteko motibazioa. Norris-ekin bat eginez, gaur egun bertute hau demokrazia ordezkatzailerik eskatzen duten inplikazio politiko mailagatik kaltetua dago. Bizi-estiloen politikak eta «aldizkako herritarrak» dira nagusi. Herritarrak parte-hartzeko prest dira, bizi nahi duten bizitzaren alde egiten duten politikak defendatzeko, betiere, gertukoak diren gaiei (close to home) arreta handiagoa eskainiz. Modu berean, ez dituzte onartzen zuzenean eragiten dizkieten politikak, nahiz eta guztion ongiaren alde joan (not in my back yard). Herritarren inplikazioa aldizkakoa da, eta maiz hedabideen paperak zeresan handia du parte-hartzerako bultzatze horretan. Gobernu irekiaren zereginetako bat, beraz, herritarren artean bertute zibikoa eta kapital soziala jorratzea da; partaidetza bezalako dimentsio garrantzitsu baterako dituen helburuak egikaritu nahi baditu behintzat (Villoría, 2012).

Open Government Partnership-eko kide izateko sinatu behar den agirian azaltzen den konpromisoetako bat herritarren parte-hartzea bultzatzea da, baina ez edonola. Gobernuak hau onartzen dute: *"Politika publikoen erabakietan eta formulazioan jende guztiaren parte-hartzea baloratzen dugu, bereizkeriarik gabe. Jendearen parte-hartzeak, emakumeen partaidetza barne, gobernuaren eraginkortasuna areagotzen du herritarren jakintza, ideia eta ikuspuntuez elikatzen den heinean. Guk politika publikoen*

erabakiak eta formulazioa gardentasunean egiteko konpromisoa hartzen dugu, herritarren feedbacka eskatuz eta gobernuaren ekintzen garapena, kontrola eta ebaluaziorako parte-hartze publikoan sakonduz (...)". Hala ere, era honetara planteatuta, kritikak jaso ditu herritarrek parte-hartzeko gobernuaren baimenaren zain egon behar dutela dirudielako. Oszlak-ek (2013) argi esaten du herritarrak ez direla berezko aktore politikoak. Jendeak ez du parte-hartzen soilik gobernu batek horretarako gonbidapena egiten duenean, izan ere, ekintzarako momenturik aproposena gizarteko sektore batek, gobernuaren politika baten ondorioz, bere burua mehatxatuta ikusten duenean izaten da.

Sistema demokratiko liberalak parte-hartzearen beharra minimora murrizten du, herritarren ekinbidea hauek hautaturiko ordezkarien bidez bideratzen delako. Horri indibidualismoaren areagotzea gehitu behar zaio, bizi-estiloen ugaritze eta garrantzia hazkorrari lotuta. Bi osagai horiek dira egungo herritarrek parte-hartzearekiko duten portaera azaltzen dutenak neurri handi batean. Ordezkatze sistemak partaidetza ez-jarraitua, aldizkako, eragiten du eta indibidualismoaren areagotzeak politikarekiko inplikazioa norbanakoaren behar, interes eta ingurura mugatu du. Calderónek (2014: 108) ere kausa handietatik arazo konkretuetarako igarotze bat egin dela uste du. Jada ez dira beharrezkoak marko ideologiko edo programatiko handiak ekintza jakin bat defendatzeko bere iritziz: *"ekintza gertaera oso espezifikoek bultatzen dute bat-batekotasuna eta eraginkortasuna lortu nahian"*.

Gobernu irekia politikaren beharrizan berrietara egokitutako estrategia da, horrenbestez Insulzak (2012: 10) dioen bezala, edozein herritarri deliberazioan parte-hartzeko beta eskaintzen dio, talde politiko bateko kide izan beharrik gabe. *"Orain bakarrik, aurrerapen teknologiko eta Interneten hedapenarekin, izan da posible hartu-eman hori modu original eta Estatuentzako kostu onargarriekin abiaraztea"*. Zentzu berean, Martínezek (2012) defendatzen du helburua haratago joatea dela, herritar arruntekin harreman zuzena lortzeraino. Gobernu irekiak elkarteetan antolatuta dauden gizabanakoei bezala, herritar antolatu gabeei ere parte-hartzea ahalbidetzen die. De los Ríosek (2013), Euskadiko «Irekia» plataformaren

kasu zehatzari erreferentzia eginez, azpimarratzen du tresna honek herritarrek gobernu-arlo bakoitzeko arduradunari, zuzenean, galdegitea posible egiten duela. Hartara, norbanakoaren ahotsa desitxuratu dezaketen lobby edota erakundeetatik pasatzea saihesten da. Oszlak-ek (2013) bere ildoari jarraikiz, defendatuko du praktikan ohikoagoa dela partaidetza antolatze modu ezberdinez adieraztea; kolektiboan. Gobernu irekiak bultzatzen duen herritar arrunten bakarkako parte-hartzea, nahiz eta badagoen, urria da bere ustetan.

2.2.2 PARTAIDETZATIK E-PARTAIDETZARA

Prieto-Martín eta Ramírez-Alujasek (2014: 67) Font eta Blancoren herri partaidetzaren definizioa hartzen dute oinarritzat e-partaidetza edo parte hartze elektronikoa zer den azaltzeko: *"Herri partaidetza herritarrek boluntarioki, bakarka nahiz taldean, eta modu zuzen edo zeharkakoan politika publiko eta sistema politikoko zein administratiboko maila ezberdinetan eragiteko egiten dituzten ekintza multzoa da"*. Beraz definizio honetatik abiatuta, partaidetzari kutsu teknologikoa gehitzen zaionean e-partaidetza definitzen dela ondorioztatzen dute. Prieto-Martín eta Ramírez-Alujasek, autore ezberdinetan oinarrituz, aditzera ematen dute ohiko parte-hartzean atzematen diren arazo gehienak e-partaidetzari ere eragiten dizkiotela. Ez dago zalantzarik bata eta bestearen artean ezberdintasun nabariak daudela, baina funtsezko elementuak berberak dira. Partaidetzari «e» bat gehitzeak ez du erroa aldatzen, baizik eta honetan aritzeko moduan izugarri eragiten du.

Orain dela gutxira arte parte hartzearen bidez erabakitzea ezinezkotzat jotzen zirenak, egungo teknologia berriek posible egin dute hein handi batean (Telefónica Fundazioa, 2013; Díaz eta Cortés, 2014; Prieto-Martín eta Ramírez-Alujas, 2014). Gobernu irekiak administrazio elektronikoaren aurrerapen teknologikoa bere gain hartzen duenez, e-partaidetza hobesten du bere parte-hartzearen dimentsioa garatzeko. Partaidetza tradizionala herritarrei ez dagokien gauza bezala ulertu izan da betidanik; hau da, gobernarien esku dago gaiaren, egoeraren edo euren interesen arabera noiz

utzi herritarrei ekarpenak egiten. Betiere, gobernariak izango dutelarik azken hitza (top-down eredua); parte-hartzeko modu berriek, aldiz, autonomia eta konpromiso maila altuagoa dute (bottom-up eredua). Zentzu horretan gobernuak herritarrari inplikatzeko aukera ematen ez badio, herritarrak erreklamatu egingo du dagokion zerbait ukatzen ari zaizkiola ulertuko baitu. Ideia honek gobernu irekiaren filosofiarekin bat egiten du, administrazioa eta herritarra zabalpenaren ko-erantzuletzat dituelako. Parte-hartze modu berriak deskribatzeko, bi dimentsio konbinatzen dituen eredu bat proposatzen da (*ikus 1. taula*): lehenengo dimentsioak «nor» galderari erantzuten dio, hau da, ekintza parte-hartzailearen aktorea; bigarren dimentsioak, berriz, zertarako galderari erantzuten dio, aktoreak eragin nahi duen helburu edo esparrua alegia.

1. TAULA: Parte-hartze modu berrien dimentsioak.

		AKTOREA		
		NORBANAKOA	SAREA	TALDEA
		Ni bakarrik	Ni beste Batzuekin	Ni zerbaiten parte
ERAGITEKO HELBURU DEN ESPARRUA	INDIVIDUALA Ni neu edo pertsona konkretu bat/batzuk.	-Eskutitzak idazten ditut egunkarietara. -Produktu biologiko eta bidezko merkataritzakoak kontsumitzen ditut. -Iritziak puntuatzen ditut foroetan. (+)	-Galderak erantzuten ditut foroetan. -Informazio alternatiboko iturriak kontsultatzen ditut. (+)	-Trebakuntza jasotzen ditut GKE baten parte hartuz. -Elkarte kulturealean lagunak egiten ditut. (+)
	MURRIZTUA edo BARNEKOA Nire taldea edo kolektibo txiki bat.	-GKE bati dirua ematen diot. -Facebook darabilt nire interesak ikustarazteko. -Klaseko ordezkari naiz. -Eskaera bat sinatzen dut. (+)	-Spotify-eko musika zerrendak partekatzen ditut. -Flas mob batean parte hartu dut. -Aurrekontu Parte-hartzaile baten parte hartu dut. (+)	-GKE batean boluntario ari naiz. -Nire elkartearen izenean Aurrekontu Parte-hartzailean parte hartu dut. (+)
	ZABALA edo KANPOKOA Nire ingurua, kolektibo handi bat edo gizartea oro har.	-Herrialdeko hauteskundeetan botoa ematen dut. -Alren kanpainan sinatzen dut. -Indarkeriaren aurkako manifestazio batera noa. (+)	-Sare sozialetan indarkeriaren aurkako manifestazioaren berri ematen dut. -MMEaren aurkako mobilizazioetara noa. (+)	-Nire alderdiko ikuskatzaile aritzen naiz hauteskundeetan. -Indarkeriaren aurkako manifestazioa antolatzen dut. (+)

Iturria: Prieto-Martín eta Ramírez-Alujas (2014).

Gelatxo bakoitzak ezarrita duten sinbolo positiboek IKTen bultzada indartzailea islatzen dute; tamainaren arabera efektu handiagoa edo txikiagoa adieraziz. Taulan ikus daitekeen lez, Internetek onura gehien sareekin lotutako partaidetza moduei egiten die, baita esparru murriztu edo gertuko baten eragitea bilatzen duten norbanakoena ere (Prieto-Martín eta Ramírez-Alujas, 2014).

2.2.3 E-PARTAIDETZARAKO TRESNAK

Partaidetza hartu-emana ahalbidetzen duten plataformen bidez bideratzea proposatzen du gobernu irekiak. Herritarrak eta gobernu 2.0 webguneen⁵ bidez harremanetan jartzeak bi noranzkoko aukera zabaltzen ditu: batetik, G2C (Government to Citizens) edo gobernutik herritarrei kontsultak luzatzea administrazioak hauen eskaerak ezagut ditzan. Bestetik, C2G (Citizens to Government) edo herritarrek gobernuari informazioa eskatu eta administrazioarekin komunikazio jarraituan jarduteko aukera eskaintzea (Coroñan eta Campos, 2012). Momentura arte ez dago politikari eta erakundeen sare sozialetako kontuetan komunikazio hau lantzeko borondate handirik, izan ere, boterearen aldebakartasun eta diskrezionaltasunera daude ohituta (Díaz eta Cortés, 2014). Horren aurrean kargu publikoak presionatzea beharrezkoa da batzuetan De los Ríos-en (2013) ustez. Presio hori modu eraikitzailean egin daiteke arduradun politikoari erantzuten zenbat tardatzen duen gogoratu, adibidez.

Sare-gizartean herritarrak komunitate ezberdinetan birtualki antolatzen dira eta horretan datza 2.0 webguneen ezaugarriak erabiltzen dituzten aplikazio eta sare sozialen garrantzi hazkorrak. Plataforma hauetan elkarlana eta orotariko gaien kudeaketa errazten da, gobernuetan aplikatu ahalko diren etorkizuneko eredu berriak sortzen diren espazioak izateaz gain. Barack Obamaren Gardentasun eta Gobernu Irekiari buruzko Memorandumak ezartzen duen bezala, erakunde publikoek egiten eta erabakitzen dutenaren inguruko informazioa «online» eskaini, eta herritarrei zein informazio zaien

⁵ Informazioa partekatzea, interoperabilitatea, erabiltzailean zentratutako diseinua eta elkarlana errazten duten webguneak.

erabilgarrien galdetu behar diete. Sarea bera da ekintzarako gunea Subiratsen hitzetan; bere malgutasunak esfortzu minimo batekin edozein norbanako edo taldek eragiteko aukera zabaltzen du (Bojórquez, 2012). Kataluniako Generalitatea aitzindari izan zen sare sozial nabarmenetan erabiltzaile-kontuak irekitzen herritarrei informazio instituzionala helarazteko. Horretarako, «Guia d'usos i estils a les xarxes socials de la Generalitat de Catalunya⁶» gidaliburua idatzi zen aurretik, non mundu guztiko erakunde publiko eta pribatuek baliatu dituzten jarraibideak ezartzen diren. Era berean, Generalitatea bere presentzia sare sozialetan ebaluatzeko adierazle multzo bat definitu dituen lehen administrazioa izan da (Graells, 2012).

Telefónica Fundazioko (2013) «Las TIC en el Gobierno abierto: Transparencia, participación y colaboración» txostenean honako tresna hauek zerrendatzen dira partaidetza IKTen bidez bideratzeko:

- a) Entzute aktiboa: Sare sozialak, foroak eta blogak bezalako kanal berriek tratu zuzenagoa, iritzi aniztasuna eta askatasun gunek bat bezalako onurak ekarri dituzte. Baina heterogeneotasuna, informazio andana sortzea eta egitura finko baten falta bezalako erronkak planteatzen dituzte. Gainera, ezin dezakegu ahaztu herritarren segmentu baten iritzia islatzen dutela soilik. Edozein kasutan, hauen garrantzia areagotzen joango da urteen poderioz, beraz ezinbestekoa da informazioa entzun, batu eta sailkatuko dituzten estrategiak martxan jartzea:
- Iturrien arakatzea: Etengabeko arakatze bat gauzatu behar da, informazioa gordinean atzemateko Interneteko iritzi foro ugarietatik.
 - Informazioaren analisisa: Lortutako informazioa semantikoki eta era automatikoan lantzen da aurretik definituriko irizpideen arabera. Garrantzia eta lehentasunaren arabera sailkatu behar dira.

⁶ (Generalitat de Catalunya, 2010)

https://www.gencat.cat/xarxessocials/pdf/v1_guia_usos_xarxa_cat.pdf

- Txostenen sozializazioa: Landutako informazioaren edukiak jasotzen dituen dokumentua argitaratu egiten da informazioaren zirkulua ixteko.
- b) Ekitaldien emanaldia: Herritar eta bestelako aktoreen presentzia birtuala eta parte-hartzea ahalbidetu ekitaldi nabarmen eta eztabaida publikoetan (osoko bilkurak, batzordeak...). Hau egiteko gehien erabiltzen den bidea «web streaming» delakoa da. Ekitaldiak zuzenean emititu edota multimedia materialak webguneetan jartzen dira eskuragarri herritarrek nahi dutenenean ikus ditzaten.
- c) Elkarlanerako tresna berriak: Sarean garatzen diren ekimen kolaboratiboak dira; beti inplikatzeko dute elkarrekiko onura. Pertsona, erakunde, irabazi asmorik gabeko talde edo enpresa batek pertsona jakinei deialdi ireki bat luzatzen die zeregin zehatz bat egiteko. Deitutako pertsonak lana, dirua, ezagutza edota esperientzia ekartzen dute helburua lortze aldera (kanpainen finantzazioa, enplegu anezkak...) 2 motarik ezagunenak «crowdfunding» eta «crowdsourcing» dira.
- d) Boto elektronikoa: Kontsultak, hauteskundeak, inkestak, erreferendumak eta bestelako galdeketak modu eraginkor bateagoan burutzeko beharrak bide elektronikoak jorratzea eskatzen du. Bozketak elektronikoek hauteskunde tradizional batzuetan dagoen konfidentzialtasun maila bera mantendu behar dute, fidagarritasuna galdu barik. Hautesleen identifikatze segurua, pribatutasuna, botoen benetakotasuna eta eraso informatiko batek boto digitalen manipulazioa eragingo ez duela bermatu behar da.
- e) CRM eta Ticketing: Herritarren iritziak tramitatu eta erantzutea da helburua. Enpresa munduan nahiko garatua dagoen lanabesa da hau bezeroarekiko arreta lehenetsun bihurtu baita gaur egun; administrazio publikoetan, ordea, motelago doa. «Ticketing» izeneko tresnak herritarrek egindako eskaera bakoitzari, identifikazio modura, ticket bat esleitzen dio tramitazioa, jarraipena eta ebazpena errazteko. Modu horretan bai herritarrek, bai administrazioak badakite zenbat denbora daraman eskaerak erantzun gabe, esaterako. Horrez gain, eskaera bakoitzari zenbait ezaugarri gehitu dakizkioke (izaera, lehenetsuna,

zein saileri zuzenduta dagoen...) administrazioaren lana asko erraztuz eta ondorioz, modu egokiagoan erantzuteko aukera emanez.

f) Partaidetzarako ataria: Gobernu irekiaren funtsezko elementu bat da herritarrarekiko komunikazioa, modu sinplean, bideratzeko plataformak eskaintzea. Kanal hauek komunikazioa beheranzkoa, goranzkoa edo horizontala izatea ahalbidetu behar dute:

- Beheranzko komunikazioa: batetik, gobernuak aurrera eraman nahi dituen ekimenen azalpena ematen du herritarrek ekarpenak eta hobekuntzak proposa ditzaten. Bestetik, e-kontsultak egin ditzake gobernuak plataforma beraren, sare sozialen edo mugikorreko aplikazioen bitartez. Herritarrek adierazitakoa modu automatikoki analizatu ondoren emaitzak argitaratzen dira.
- Goranzko komunikazioa: Herritarrek bere ideia, kezka, iritzi, kexa... gobernuari modu zuzenean planteatu diezaioketenean gertatzen da.
- Komunikazio horizontala: Gobernu eta herritarren arteko elkarrizketarako guneak, denbora errealean edo ez, ezartzen direnean. Posible da argitaraturiko edozein elementuri babesa adieraztea, komentarioak egitea edota ideia berriak plazaratzea. Xehetasun gehiagorekin aztertuz gero, hauek dira inplementa daitezkeen elementu eta funtzionalitateak: erabilerraztasuna eta diseinu sinplea; eleanitza; «login» bidezko sarbide/erregistroa; eduki generikoen kudeaketa (kontaktua, laguntza...); albisteen argitaratzea; kontsulta eta inkesten argitaratzea; proposamenen argitaratzea; komentarioak, botoak eta albisteen etiketatzea; sare sozial, blog eta foroekiko integrazioa; irudi eta bideo galeria; dokumentuak deskargatzeko gunea; erabilera orokorreko eta ekimen bakoitzeko adierazleak; informazioaren kategorizazioa; agendarako gunea; segurtasuna, perfil bakoitzaren kudeaketarako sarbidea; ohartarazpen sistemak; kanal anitzekoa (webgunea, mugikorra, SMS eta sare sozialak); erabiltzaileek baloratzeko sistemak; komentarioen moderazioa eta kudeaketa txostenen sistema.

- g) Identifikatze segurua: Gainontzeko tresnekiko modu paraleloan herritar/erabiltzaileen identifikatze segururako bitartekoak daude: «login» bidezko erregistroak, NAN elektronikoa.

2.2.4 PARTE-HARTZEA BERMATZEKO AURREBALDINTZAK

Gobernu irekiaren bidezko parte-hartzeari dagokionez funtsezkoak diren bi aspektu landuko dira orain: gardentasuna eta eten digitala. Gardentasuna ez da berez parte-hartzeari berari dagokion ezaugarri bat Prieto-Martín eta Ramírez-Alujasek (2012) aipatzen duten bezala, baina bai kalitatezko partaidetza bat bermatzeko ezinbesteko aurrebaldintza. Herritarrei informazio fidagarri eta probetxugarria eskaini behar zaie erakunde publikoetatik. Betiere, informazio ez-osoan edo honen metatzea ekidin behar da. Ez da gutxiesteko gauza ere herritarren konfiantza gobernu irekiaren muga posible bat bezala. Zentzu horretan hainbat ikerketek gardentasunaren eta herritarrek gobernuarekiko duten konfiantzaren arteko erlazioa demostratu dute (Coroan eta Campos, 2012). De los Ríosek (2013) ere gobernu irekiaren arrakasta herritarrek duten konfiantzan neurtzen dela baieztatzen du.

Gardentasuna gobernu bat zabaltzeko hastapena da. Sare-kulturak pertsonen arteko komunikazioari eragiteaz gain, harremanak eta pentsamendua egituratzeko moduak ere aldatzen ari da. Ezagutza liburuen irakurketa eta hausnartze sakonetik lortzetik, plataforma ezberdinetako egoeren eguneratze eta bilaketa zehatzen bat-batekotasunetik lortzera pasa da; informazio kantitate handiak eta datu isolatuak kontsumitzen dira gaur egun (Graells, 2012).

ONTSI (2013) behatokiak argitaraturiko «Estudio de la demanda y uso de Gobierno Abierto en España» txostenetik hainbat kontu interesgarri atera daitezke. Bertan planteatzen den hipotesietako bat herritarren konfiantza eta gobernu irekiaren arteko erlazioa aztertzean datza. Ikerketaren ondorio garrantzitsuenetakoa da administrazio eta gobernuarekiko konfiantza hobetu egiten dela gobernu irekiaren politika eta zerbitzuekin. Zentzu horretan aipatzen da espainiarren %63 batek ez duela administrazio publikoan

konfiantzarik eta %72,1 batek uste duela gardentasunak gobernuaren konfiantza hobetzen lagunduko lukeela. Txosten berberak ikerketa honetarako baliagarriak izan daitezkeen beste 2 datu interesgarri ematen ditu. Batetik, Estatu osoko administrazio publikoei kontsultak egin izan dizkioten herritarren %10 batek soilik erantzunik jaso ez dutela aipatzen da. Bestetik, Euskadiko herritarrek gehien eskatzen eta bilatzen duten informazio publikoaren arteko konparaketa egiten duen grafikoa erakusten da. Honen arabera informazio eskatu eta bilatuenak osasungintza, enplegu/langabezia/pentsioak eta hezkuntzari loturikoak dira, batez ere, lehendabizikoa nabarmendurik.

Herritarrek informazio eta trebakuntza egokirik izan ezean, gobernuak eskaintzen dituen zerbitzuak ez ezagutzea edo hauek erabili nahi ez izatea gertaliteke (Corojan eta Campos, 2012). IKTek duten oztopo nagusia eten digitala da. Gobernu irekia teknologia berriei hertsiki loturik dagoenez, biztanleriaren zati garrantzitsu bat honen aplikazio eremutik at uzteko arriskua dago: adineko pertsonak eta desgaitasunen bat dutenak kasu (Telefónica Fundazioa, 2013). Nahiz eta azken urteetan Internet erabiltzen dutenen kopurua asko igo den, badira adin, eremu geografiko, maila sozioekonomiko, hezkuntza edota hizkuntza arrazoiengatik zerbitzu elektronikoak erabiltzeko zailtasunak dituztenak (Corojan eta Campos, 2012). Horren ondorioz, e-partaidetzaren hazkundeak IKTen sarbide eta erabileran desberdintasun sozialak areagotzea izan dezake ondorio bezala, ez bada gizarteko sektore behartsuenen barneratzea bermatzen (Oszlak, 2013).

Precht eta Huertak (2012), Hartmann aipatuz, gogoratuko dute ez dela nahikoa Estatu batek zenbait informazio eta tramite Interneten bidez eskaintzea gizarteko sektore batzuek ez badute berau erabiltzeko modurik. Hala ere, Martínezek (2012) uste du Interneterako sarbiderik ez duten sektoreek ere gobernu irekiaren paradigmaren onurak jasoko lituzketela. Informazioa berrerabiltzeko aukera herritar batzuentzat baliagarria izango delakotik abiatuta, suposa daiteke pertsona horiek eskura duten informazioa hedatu eta sozializatu egingo dutela beste herritar batzuei

ezagutza helaraziz. Hemen elkarlanak duen balioa agerian uzten da; gizarte zibilaren artekoa kasu honetan.

IKT ezberdinen artean Internet nabarmenena da, gizarte osoarentzat onuragarria izateko potentzialtasuna baitu (Mesa eta Martínez-Monje, 2015). Díaz eta Cortésen (2014) «Gestión inteligente de las redes sociales en la Administración pública» ikerketan Orange Fundazioak ateratako datuak erabiltzen dira. Hauen arabera 2013an espainiar Estatuko etxebizitzaren %70 batek Interneterako sarbidea zuen eta Europar Batasunean %79 batek. Datu hauek adierazten dute espainiar Estatuko eten digitala, sarbideari dagokionez, EBkoa baino 9 puntu altuagoa zela. Eboluzioei begira, EB15 delakoa 2005eko %58 bateko Interneterako sarbidetik 2014ko %82 batera pasatzen da eta espainiar Estatua, denbora tarte berean, %48 batetik %77 batera (Mesa eta Martínez-Monje, 2015).

Gobernu irekiak ezin ditu atzean utzi, baina, eten digitalaren ondorioak (e-esklusioa), hortaz gobernuek herritar guztiak gobernu irekia erabiltzeko beharrezkoak diren tresnetara sarbidea izan dezaten lan egin behar dute (e-inklusioa). Hala ere, gobernuen arreta handiena tresnetan baino gardentasunaren hobetzean, parlamentarien kontu ematean eta parte-hartzean dago, herritarren konfiantza berreskuratzeko asmoz (Coroñan eta Campos, 2012). Horren harira, Europar Batasuneko Informazioaren Gizarteari buruzko planetan ez zaio «eten digitala» kontzeptuari inolako erreferentziarik egiten Europar Agenda Digitalekoan (EAD) salbu. Bertan adierazten da Interneterako *"sarbidea eta erabilera babes handiena behar duten gizarte taldeentzako (desgaituak dokumentuaren arabera) arazo"* direla (Mesa eta Martínez-Monje, 2015: 123). Honek argi uzten du eten digitala gainditzea ez dela lehentasun bat europar erakundeentzako eta gainera, desgaituak jotzen dituzte arazo gune bakar moduan; gainontzeko sektore kaltetu guztiak ahaztuz. Egungo eta etorkizuneko parte-hartzearen arrakastak prozedura birtual eta presentzialak modu osagarrian konbinatzean datza Díaz eta Cortésen (2014) arabera.

2.2.5 PARTE-HARTZE ESKEMA

Prieto-Martín eta Ramírez-Alujasek (2014) «Characterizando la participación ciudadana en el marco del Gobierno Abierto» artikuluan Parte-hartze Eskema (PhE)⁷ eredu bat proposatzen dute Sherry Arnstein-en 1969ko «Herri Partaidetzaren Eskailera» oinarri hartuta. Eskala honek partaidetza prozesuen dimentsio garrantzitsuenak identifikatzea eta ezaugarrien araberako irudikatze grafikoa ahalbidetzen du; geroko analisi eta konparazioak bideratzeko helburuarekin. Eredu hau, batez ere, tokiko mailako herri partaidetzari begira garatu da. Hala ere, autoreek onartzen duten bezala, beste maila administratibo batzuetarako ere erabilgarria da. Hurrengo hauek dira PhE baten funtsezko 5 dimentsioak:


- a) ZER dimentsioa: Parte-hartze prozesuetan behatu daitekeen elkarlan mailari egiten dio erreferentzia. Dimentsio honetan honako kategoria hauek aurki ditzakegu hurrengo balio-kodeekin (*ikus 1. irudia, 28. orr*):
- Partaidetza eza: Manipulazioa (0) da kategoria honen maila bakarra. Herritarrak, entzuten ari zaien ustearekin, baretuta mantentzea bilatzen dute gobernariak. Berez, ez dago herritarren proposamenak kontuan hartzeko intentziorik, erabaki hartzaileen interesekin bat egiten dutenean salbu. Gaur egun, partaidetzarako gune asko gobernariak nahierara kontrola dezaten diseinatuak dira eta, hala, euren agendari mesede egiteko. Jada hartutako erabakiak herritarrek berresteko edo lege-eskakizunak betetzeko funtzioa dute soilik.
 - Gatazka: Elkarlan maila negatiboei egiten dien erreferentzia; partaidetza ezaren azpian kokatuz. Parte-hartze modu autonomoak barne hartzen ditu, hau da, espontaneoki erabaki edo arazo batengatik kaltetutakoek hasten dituzten protestak. Kategoria 2 mailatan banatzen da: Hertsadura legitimoa (-1), marko legalak errespetatuz eta modu baketsuan gauzatzen direnak eta legez kontrako koakzioa (-2), indarkeria erabiliz eta giza eskubideak urratuz gauzatzen direnak.
 - Kontsultarako partaidetza: Parte-hartze modu tradizionalaren mailak islatzen ditu, non erabaki hartzaileak herritarrak deitzen ditu bere

⁷ Gaztelera, Esquema de Participación (EdP).

erabakien berri eman eta hobetzeko asmoz. Betiere, gobernatzailerak egokien jotzen duen erabakia hartzeko gaitasuna mantentzen du. 3 mailatan banatzen da: Informazioa (1), gobernuak herritarrei egiten ari denari edo egingo duenari buruzko informazioa ematen die, asko ala gutxi izan. Kontsulta (2), komunikaziorako kanal bat sortzen da (inkestak, fokatze taldeak...) non gobernariak herritarren «feedbacka» jaso dezaketen politika publiko bati dagokionez. Aholku ematea (3), herritar eta elkarteek proposamenak aurkez diezazkiokete gobernuari elkarrizketa bateko parte modura.

- Partaidetza kolaboratiboa: Elkarlanean oinarritzen den parte-hartzeari egiten dio erreferentzia; bere maila ezberdinetan zehar intentsitate hazkorrekin garatzen joan daitekeena. Hurrengo 3 mailatan banatzen da: Kontrol delegatua (6), botere publikoak erakunde parte-hartzaile bati erabakitzeko gaitasuna eskuordetzen dioenean gertatzen da. Gizarte zibileko beste aktore batzuekin lankidetzan politika publikoak garatzea onartzen du gobernuak, erakundean hartzen diren erabakiak errespetatuz. Ez du suposatzen, inolaz ere, administrazioak bere erantzukizunak alboratzea; orientabideak eman eta, interes publikoak hala eskatzen duenean, kontrola berreskura dezake. Botere delegatua (5), aurrekoarekin konparatuz erakunde parte-hartzaileari botere mugatuagok eskuordetzen zaizkio. Hortaz, erakundeak zer erabaki dezakeen eta zer ez edo gobernuaren kontrolerako mekanismo gehiago (beto-eskubidea, erabakien berraztertzea...) ezarri daitezke. Elkarlana (4), kasu honetan ez da gauzatzen delegaziorik administrazioaren aldetik. Gobernuak eta gizarte zibileko aktore ezberdinek, zuzentasun kolaboratiboaren printzipio eta praktiken arabera, onartzen dute elkarrekin lanean dihardutela konponbide eta proposamen egokienak bilatzeko. Hortaz, bertan adostutakoak gobernatzaileraren azken erabakian era nabarian eragitea espero da.

1. IRUDIA: ZER dimentsioko kategoria eta mailak.



Iturria: Prieto-Martín eta Ramírez-Alujas (2014).


- b) NOIZ dimentsioa: Ohikoa da prozesu parte-hartzaileak fase edo momentu ezberdinez osaturik egotea. Fase bakoitzean helburuak ezberdinak dira eta inplikatu beharreko aktoreak aldatzen doaz. PhE baten ikerketa objektua politika publiko bat bada, gomendagarria da momentuak politika publikoen ziklo tradizionaleko bost faseen arabera banatzea: eraketa/agenda, formulazioa, erabaki hartzea, implementazioa eta ebaluazioa. Hala ere, momentuak egoera eta ikergai bakoitzari moldatu dakizkioke.
- c) NON dimentsioa: Prozesu parte-hartzaileen erakundetze mailari egiten dio erreferentzia. Oro har, erakundetze maila zenbat eta handiago izan, orduan eta diskrezionaltasunerako tarte txikiagoa dute bai prozesuaren bultzatzaileek, bai gobernatzaileek. Mailarik altuenetan partaidetza mekanismoen funtzionamendua babestu eta erregulatzen duten araudiak izaten dira. Prieto-Martín eta Ramírez-Alujasen arabera dimentsio hau funtsezkoa da prozesu parte-hartzaileak ulertzeko, nahiz eta gaur egunera arte proposatu diren ereduetan ez den gehiegi kontuan hartu. Dimentsio honen kategorietako batzuk hurrengoak dira: Erakundetze funtzionala, herritarren ekimenez administrazioarekin

harreman parte-hartzaile bat hasteko prozedura eta kanalak zabaltzen dituzten legeak onartzen direnean (Herri Ekimen Legegilea, hirigintza planei loturiko kontsultak, osoko bilkuretan parte-hartzea...). Erakundetze organikoa, izaera iraunkor edo ia iraunkorra duten organo parte-hartzaileak eratu diren kasuetan. Bertan, lantzen den gaiarekin zerikusia duten aktore ezberdinen ordezkariak parte-hartzen dute. Organo hauek erabakitze, aholku eta kontrolerako gaitasuna izaten dute (gobernetako sail ezberdinen egituraren parte diren fundazio, batzorde, kontseilu...).

- d) NOLA dimentsioa: Dimentsio hau bi kategoriatan banatzen da: Gardentasuna, ez da berez partaidetzarako modu bat, baina bai partaidetza kolaboratiboa errealitate izan dadin bete beharreko aurrebaldintza bat. Kalitatezko parte-hartzeak gardentasun maila altuen beharra du erakundeen aldetik. Parte-hartzaileei informazio fidagarri eta nahikoa eskaini behar zaie, erabakia hartuko den testuinguru instituzionalean kokatu, dauden alternatiba guztiak aurkeztu eta jokoan dauden interes nagusiak azaldu. Deliberazioa, prozesu parte-hartzailean zehar gertatzen diren harreman komunikatiboek ze punturaino ahalbidetzen duten deliberazio bizi bat eta kalitatezkoa neurtzen du. Gutmann eta Thompson-ek honela definitzen dituzte espazio deliberatibo batek bete behar dituen irizpideak: arrazoi eta argudioak trukatzeko dira, ahots guztiek ordezkaturik egon behar dute espazio ireki, anitz eta inklusiboa den heinean, informazioa modu ulergarri eta irisgarrian eskaintzen da, ezberdintasunak minimizatu eta ados guneei lehentasuna ematen zaie eta azkenik, erabaki zehatz bat hartzen da kontsentsuz. Deliberazioaren kalitatean ere zeresan handia du parte-hartzaile ezberdinen portaerak. Deliberazio on baterako parte-hartzaileek elkar entzuteko borondate eta gaitasuna eduki, besteen ikuspuntuei errespetua adierazi eta ados gune eta lankidetzaren alde egin behar da.
- e) NOR dimentsioa: Prozesuan eragiten edo inplikatzeko dituen aktoreekin du zerikusia. Dimentsio hau oso konplexua dela diote autoreek eta beraz, euren lehengo proposamen bezala ulertu behar dela. Lehenik eta behin aktoreen sailkatzea komeni da egitea: aktore politikoak

(administrazio publikoak, gobernu, organo legegile bat...), aktore korporatiboak (komunikabideak, enpresari elkarteak, sindikatuak...), aktore zibilak (GKEak eta bestelako talde zibilak) eta herritar soilak. Aktoreen maila bakoitzerako analisi zehatz bat egin beharko litzateke, bakoitzaren garrantzia eta influentzia maila aztertuz beste gauza batzuen artean. Kontuan hartu beharreko beste kontu bat parte-hartzaileak barneratzeko jarraitu den aukeratze prozesua da; boluntarioak, adituak, erakundeetako ordezkariak diren, zoriz hautatuak edo botazior. Azkenik, rol bereziak dituzten aktoreak identifikatzea komenigarria litzateke; erabaki hartzaileak, babesle finantzarioak, prozesuaren kudeatzaile/bideratzaileak...

2. IRUDIA. PhE adibide bat – Aurrekontu Parte-hartzaileak.



Iturria: Prieto-Martín eta Ramírez-Alujas (2014).

PhE batek ematen duen informazioa esperientzia konplexu eta anitzei egiten die erreferentzia; grafiko batek bere osotasunean ezin duena irudikatu. Horregatik PhE batek irudikatze grafikoaz gain, beti edukiko du hori ulertzen lagunduko duen justifikazio zehaztua. Parte-hartze Eskalak erabiltzeko

ikuspegi kritiko eta zorrotza behar da; ez da nahikoa prozesu baten bultzatzaileen intentzio edo deklarazioekin. Eskala hauek baliagarriak dira partaidetza prozesuetako kudeatzaile eta ikerlarientzako, egiten ari direna edo egin nahi dutena deskribatzen, oinarrizko dimentsioak identifikatzen eta aukera ezberdinen artean konparatzen laguntzen dielako. Prozesu parte-hartzaileak garatzen diren baldintza konkretuek (gaia, herritarren ezaugarriak, egoera politikoa...) zehazten dute zein intentsitate kolaboratiboa den egokiena kasu bakoitzean. PhE bat ez da interpretatzeko ezta irudikatzeko gauza erraza. Prieto-Martín eta Ramírez-Alujasek beta jarraitu baten mantendu nahi dute aurkezten duten eredua; hobekuntzak onartzeko prest. PhE eredua zeozer ireki eta malgu bezala ulertu behar da, erabiltzailearen interesen edo kasuaren arabera moldatu daitekeena. Adibidez, autoreen ustez interesgarria izango litzateke prozesuetan erabiltzen diren tresna teknologikoak edo gobernu maila ezberdinak kontuan hartzea (Prieto-Martín eta Ramírez-Alujas, 2014).

2.3 HIPOTESIAK

Ikerketaren helburuei jarraikiz, eta gobernu irekia eta honen bidezko parte-hartzearen inguruko azterketa literarioa egin ostean, honako hipotesi hauek planteatzen dira:

1. 2010ean gobernu irekiko politikak aplikatzen hasi zirenetik gaur egunera euskal herritarrek Jaurlaritzarekiko duten konfiantza maila hobetu da.
2. 2010ean gobernu irekiko politikak aplikatzen hasi zirenetik gaur egunera arte adineko pertsonak pairatzen duten eten digitala areagotu egin da Euskadin.
3. Eusko Jaurlaritzak, gobernu irekiaren bidezko partaidetza bideratzeko, IKTek eskaintzen dituzten tresna gehienak martxan jarri ditu.
4. Irekia plataformaren bidezko prozesu parte-hartzaileak izaera kontsultibotik haratago doaz.
5. Irekia plataformaren bidezko prozesu parte-hartzaileak gardentasun maila altukoak dira.
6. 2015. urtetik 2016ko maiatzera arte Irekian herritarrek egin dituzten eskaeren gehiengoa osasun arloari lotuta daude.
7. 2015. urtetik 2016ko maiatzera arte Irekian herritarrek egindako eskaeren gehiengoak izaera pertsonal, konkretu edota gertukoa du.
8. Eusko Jaurlaritzak, 2015. urtetik 2016ko maiatzera arte, herritarrek Irekian egindako eskaeren %90 inguru erantzun ditu.

3. METODOLOGIA

Gradu Amaierako Lan honetan 2010ean Eusko Jaurlaritzak gobernu irekiko ereduaren aldeko apustua egin eta gaur egunera arteko balorazio bat egin nahi izan da, aspektu ezberdinetatik analizatuz. Hortaz, ikerketaren helburua deskribatzailea da. Diseinuari dagokionez, ez-esperimentalak ezin baita aztergai den fenomenoak kontrolatu. Ikerketak metodologia kualitatibo eta kuantitatiboa modu osagarrian erabiltzen ditu. Atal kualitatiboari dagokionez, azterketa literario sakona egin da gobernu irekiari buruz. Kontzeptuaren inguruko aspektu teoriko, ezaugarri eta eztabaida nagusiak azaleratuz. Era berean, gobernu irekiaren bidezko parte-hartzearen inguruan teorikoki planteatzen diren tresna teknologikoak eta partaidetza prozesuak aztertzeke eredu bat aplikatu zaizkio Eusko Jaurlaritzaren «Irekia» plataformari. Eredu teorikoen aplikazioarekin 3., 4. eta 5. hipotesiak egiaztatu ahal izan dira.

Atal kuantitatiboari dagokionez, alde batetik iturri ez-zuzenen azterketan Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak eta Eustatek sortutako datuak erabili dira gobernu irekia euskal herritarren konfiantzarekin eta Euskadiko eten digitalaren egoerarekin lotzeko. Iturri ez-zuzenen teknika 1. eta 2. hipotesiak frogatzeko baliatu da. Bestetik, eduki azterketaren teknika erabili da. Horretarako, Irekia plataformako «herritarren eskaerak» atalean ikusgai dauden eskaerak aztertu dira banan-banan, 2015eko urtarriletik 2016ko maiatzera. Guztira 442 izan dira aztertutako kasuak eta horietatik ateratako datuak kalkulu estatistikoen programa batekin tratatu dira. Eskaera bakoitzean jarraitu den protokoloa honako hau izan da:

- 1. aldagaia: Kasu bakoitzean egiten den eskariaren gaia arloko sailkapeneko batekin identifikatu. Arloko kategoriak honela kodifikatu dira: osasuna (1), azpiegiturak eta garraioak (2), arauak eta justizia (3), ingurumena eta landa politika (4), segurtasuna eta berdintasuna (5), ekonomia eta fiskalitatea (6), hezkuntza eta kultura (7), hizkuntza politika, euskara (8), informazioa eta gardentasuna (9), etxebizitza, enplegua eta prestazioak (10) eta beste batzuk (11). Kategoriak

Jaurlaritzaren Sailen banaketa eredu hartuz eraiki dira hasiera batean eta ondoren, datuak jaso ahala beraien nomenklatura egokitzen joan da.

- 2. aldagaia: Kasu bakoitzeko gaiaren izaera identifikatzea hurrengo kodifikazioa duten kategorien arabera: gertukoa/pertsonala/konkretua (1) den gaia edo helburu orokorra/kolektiboa (2) duena. Kategorizazio hau marko teorikoan oinarrituz egin da.
- 3. aldagaia: Eusko Jaurlaritzak kasu bakoitza erantzuten zenbat denbora eman duen jasotzea, eskaeran ageri den markagailuak ematen duen informazioa baliatuz. Erantzun-denbora egunetan jaso da, beraz minututan, orduetan eta hilabetetan eskaintzen den informazioa egun unitatera pasa da. Hilabeteak 30 egunekoak bezala kontsideratu dira. Erantzun gabeko eskaerei (0) balioa ezarri zaie aldagai honetan eta ondoren, kalkulu estatistikoaren programari «balio galdu» bezala kontabilizatzea agindu zaio. Hartara, estatistiko deskribatzaileen kalkuluan ez dute eragiten eta, bide batez, ez-erantzunak zenbat diren kontabilizatzen da.


Behin datu-basea osatuta, 1. eta 2. aldagaien maiztasun-banaketak kalkulatu dira ehunekotan eta jarraian, bien arteko taula gurutzatua egin da. 3. aldagaiari dagokionez, ondorengo estatistiko deskriptiboak kalkulatu dira: batezbestekoa, balio minimo zein maximoa, desbideratze tipikoa eta mediana. Eduki azterketaren teknikak 6., 7. eta 8. hipotesiak konprobatzea ahalbidetu du.

4. GOBERNU IREKIA EUSKADIN

2.2.1 AURREBALDINTZAK: GARDENTASUNA ETA ETEN DIGITALA EUSKADIN

Gobernu ireki baten helburuak ondo betetzen joan daitezzen ezinbestekoa da gardentasun maila egokia eta eten digitala murrizteko ahaleginak egitea, marko teorikoan ikusi dugun lez. Gardentasuna kalitatezko partaidetza baterako aurrebaldintza da eta, horrenbestez, gobernu ireki baten adierazle nagusia herritarrek gobernuarekiko duten konfiantzarekin harremanetan jartzen bada (Coroan eta Campos, 2012; De los Ríos, 2013).

3. IRUDIA: Eusko Jaurlaritzarekiko Euskadiko herritarrek duten konfiantza eta erakundearen gardentasun mailaren bilakaera 2010-2016 urte bitartean.



Iturria: Lanketa propioa.

Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetea.

42, 44, 45, 48, 50, 51, 55, 60. Euskal Soziometroak erabili dira.

*2015eko daturik ez dago. 2016ko martxoko datuak gogobetetasunari egiten dio erreferentzia.

Transparencia Internacional.

2010, 2012 eta 2014ko INCAU indizeak erabili dira.


Grafiko honetan 2010etik, «Irekia» martxan jarri zen urtetik, 2016ra euskal herritarren Eusko Jaurlaritzarekiko konfiantzaren eboluzioa ikus daiteke marra urdinean. Halaber, marra gorrian, «Transparencia Internacional» erakundearen «INCAU» indizeak Euskadiko Gobernuari 2 urtean behin ematen dion puntuazioaren bilakaera ageri da; 2010, 2012 eta 2014an emandakoak hain zuzen ere. Herritarrek gobernuarekiko duten konfiantzan gauza askok eragin dezakete (krisia, gardentasuna, ekintza konkretuak...) eta horren ondorioz, ez da posible horren gorabeherak aldagai bakar bati egozte; are gutxiago erlazio kausalak ezartzea. Horretaz kontziente, eta konfiantzaren bilakaerari erreparatuz, 2010etik egundaino herritarren konfiantzak Jaurlaritzarekiko joera positibo bat izan duela baieztatu daiteke. Gorabeherak gorabehera, ukalezina da tendentzia orokorra gorakoa izan dela; 6 urte horietako azkenetan konfiantza maila altuena lortuz %65 batekin, kontuan izanik krisi ekonomiko eta sozial batean murgildurik gaudela. Zentzu horretan Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen 2014ko ekaineko Soziometroak azaleratzen du Euskadiko herritarrak direla, EB mailan, bere gobernuarekiko konfiantza handiena dutenak; espainiarrek, aldiz, konfiantza gutxien dutenak. Konparazio garbiena aurreneko urteen (2010-2013) ia %50 bateko batez besteko konfiantza maila eta azkenetako (2014-2016) %65 baten artekoarena da; %15 bateko gutxi gorabeherako konfiantzaren areagotzea aztertutako denbora tarte horretan.

Gardentasun mailari dagokionez, zehazturiko denbora tartean «INCAU» indizeak emandako emaitzek aurrerapauso itzelak eman direla ematen dute aditzera; 2010ean erdietsitako 57,5 puntuetatik 2014ko 100 puntuetara pasatzen da Jaurlaritza. Ez dago zalantzarik, beraz, Gobernuak ahalegin handia egin duela gardentasunerantz, baina gogoan izan behar da ere puntuen maximoa edukitzeak ez duela esan nahi goitik behera gardena denik. «INCAU» indizeak zenbait eskakizun zehatz egiten ditu eta horren arabera puntuazioa ezarri. Askotan exigentzia horien presentzia bermatzea izaten da joera administrazioan, errealitatean gardentasunean urrats apalak eman diren arren. Baina ez dago gardentasuna neurtzeko indize askorik eta beraz, dagoen apurra baliatu beharra dago. Dena dela, gardentasun mailaren eboluzioak badu herritarrek Jaurlaritzarekiko duten

konfiantzarekiko kointzidentziarik. Biak abiatzen dira ia puntu beretik eta goranzko tendentzia mantentzen dute, azken urteetan geldieran geratzen diren arte; bata maximora helduta eta bestea %65 baten izoztuta. Logikoki, konfiantza mailaren igoera apalagoa da, gardentasun mailan ez bezala, beste faktore askok ere eragiten diotelako.

Gobernu irekiaren bidezko parte-hartzea, batez ere, teknologia berrien erabilerari lotuta ulertzen da gaur egun; e-partaidetza delakoa. Horren harira, gizarteko sektore ezberdinen inklusio edo barneratze digitala bermatzea da oinarrizkoena. Mesa eta Martínez-Monjek (2015) diotenarekin bat eginez, IKT ezberdinen artean Internet da nabarmenena duen potentzialtasuna dela eta. Beraz, gobernu irekiaren beste aurrebaldintza minimoetako bat ahalik eta herritar gehienei Interneteko sarbidea bermatzean datza berau erabiltzeko aukera izan dezaten.

4. IRUDIA: Euskal AEko 15 urte eta gehiagoko Internet erabili duen biztanleria (milakotan) 2010-2015 urte bitartean.



Iturria: EUSTAT.

Euskal Autonomia Erkidegoak 2010. urtetik 2015era milakotan izan duen eboluzioa irudikatzen da grafiko honetan, adin taldeka eta guztira. Totalean arreta jarriz gero, nabarmena da 5 urtetan Interneten erabileran izandako gorakada; batez ere, 2012. urterik aurrera. Euskadik 16 eta 74 urte

bitarteko milioi bat erabiltzaile zituen 2010ean eta 2015erako milioi bat eta laurehun mila inguru zituen. Adin taldeei dagokienez, oso deigarria da 55 urte edo gehiagokoek 2012tik aurrera erabileran duten igoera. 2010ean 120.000 erabiltzaile izatetik, 320.000rako jauzia ematen dute 2015ean. 35 eta 54 urte bitartekoen adin taldeak ere igoera nabaria du 5 urteetan zehar. Kasu honetan ere 2012. urtetik aurrera apur bat nabariagoa. 2010. urteko 480.000 erabiltzaile ingurutik 2015eko 630.000 pasatxora iristen dira. 15 eta 34 urte bitarteko gazteen kasuan esan daiteke erabiltzaile kopurua nahiko konstante mantendu dela 5 urteetan zehar 400.000 erabiltzaile inguruan.

2. TAULA: Euskal AEko 15 urte eta gehiagoko Internet erabiltzaile den biztanleria sexu, adin, ikasketa-maila eta jarduerarekiko harremanaren arabera (2015).

	Euskal AE
Guztira (milaka)	1.321,4
Total (en porcentage) ##	71,7
Sexua	
Gizonezkoak	76,0
Emakumezkoak	67,7
Adina	
15-24	99,1
25-34	97,0
35-44	95,8
45 eta gehiago	53,7
Eskolatzeta-maila	
Lehen sektorea	19,4
Bigarren mailakoa	83,6
Goi-mailakoa	94,0
Jarduerarekiko erlazioa	
Ikasten	98,7
Lanean	91,8
Langabezian edo jarduera-ezean	42,5

Data 2015eko Urriaren 26a

Iturria: EUSTAT.

2015eko egoeraren argazkia hurrengoa litzateke Euskadin. Guztira herritarren %71,7 zen Interneten erabiltzaile batez beste; horien artean %76 gizonezkoak eta %67,7 emakumezkoak. Sexu bien arteko diferentzia %8,3 batekoa da; Gizonezkoek Euskadiko batezbestekoa pasatzen dute eta emakumezkoak ez dira iristen. Adinari dagokionez, 15 eta 44 urte tartekoen

gehiengoa erabiltzailea da, %95 batetik gorakoa. 45 urte eta gehiagokoen kasuan beherakada izugarria da %53,7 batekoa izanik Interneten erabiltzaileak. Ikasketa mailari dagokionez, ikus daiteke zenbat eta maila altuagoa, orduan eta erabiltzaile gehiago dauden. Batez ere, itzela da bigarren zein goi-mailako ikasketak dituztenen eta oinarrizkoak dituztenen arteko aldea. Azken hauen %19,4 bakarrik da Interneten erabiltzaile. Jarduerarekiko erlazioak ere ezberdintasun nabariak azalera dituzte. Ikasten edo lanean dauden erabiltzaile kopurua %90 batetik gorakoa da, baina langabezian edo ez-jardunean dauden pertsonetatik %42,5 da erabiltzaile. Hortaz, argi dago eten digitala egon badagoela Euskadin eta honek gehien kaltetzen dituen pertsonak emakumeak, 45 urte edo gehiagokoak, oinarrizko ikasketak dituztenak eta langabezian edo ez-jardunean daudenak direla.

2.2.2 IREKIA PLATAFORMAREN ANALISIA

Euskal Autonomia Erkidegoan gobernu irekia eta bere bidezko parte-hartzea 2010ean martxan jarri zen «Irekia» plataformaren bidez bideratzen du Eusko Jaurlaritzak (www.irekia.euskadi.eus). Gobernu eredu honek Amerikako Estatu Batuetan, Erresuma Batuan, Australian eta Euskadiko kasuetan garapen adierazgarria izan du Martínezen (2012) esanetan eta, egia esan, Irekia arrakastako kasu bezala aurkezten dute autore eta ikerketa askok (Díaz eta Cortes, 2014; Telefónica Fundazioa, 2013; ONTSI, 2013; Corojan eta Campos, 2011; Calderón, 2014; De los Ríos eta Ortíz de Zarate, 2012). Garbi dago Irekiak bere inguruko beste gobernuetan izan duen eragina, izan ere, gobernu irekiko atari bat abian jarri zuen Estatuko lehen Autonomia Erkidegoa izan zen. Estatu mailaz gain, nazioartean ere hito bat bihurtu da. Bere hastapenetatik, Open Government Partnership (OGP) eta Estatu Amerikarren Erakundearen (OEA) arreta piztu zuen (Díaz eta Cortés, 2014).

Irekia partaidetzarako atari bat baino gehiago da; Eusko Jaurlaritzaren gobernu ireki ereduaren gune nagusia. Parte-hartzerako bidez gain, gaurkotasuneko informazioa eta Jaurlaritzaren Sailen eta jardunbidearen

berri ematen du. Bere helburua herritarrei zuzeneko informazioa ematea (bitartekariak ekidinez) da, euren iritzia eratzten laguntzarren. Irekiak zabaldu eta osatu egiten ditu Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan jartzeko egungo komunikazio bideak, hala nola, posta arrunta, posta elektronikoa eta Zuzenean-Herritarren Arreta Zerbitzua (Irekia, 2016). Irekia atariaren analisi zehaztu bat egiteko, Telefónica Fundazioak (2013) partaidetza IKTen bidez bideratzeko zerrendatzen dituen tresnak hartuko dira oinarritzat.

Gobernu irekiko plataforma batek beheranzko, goranzko eta modu horizontaleko komunikazioa ahalbidetu behar du. Beheranzko komunikazioa edo «G2C» Irekian «gobernuaren proposamenak» gunearen bidez egikaritzen da nagusiki. Jaurlaritzak aurrera eraman nahi dituen ekimenak (dekretu eta lege aurreproiektuak, estrategiak, planak...) aurkezten dizkie herritarrei fase ezberdinetan balora ditzaten. Erabiltzaileek aldeko edo aurkako botoa eman, ekarpenak egin eta gobernuarekin nahiz gainontzeko erabiltzaileekin aspektu zehatzen inguruan hitz egin dezakete. Beheranzko komunikazioan kokatuko lirateke ere Jaurlaritzak erabiltzaileei luzatzen dizkien inkesta laburrak. Herritarrak iruditzen zaion galderaren erantzun-kategoria sakatu bezain pronto, momentuko emaitzen nondik norakoak eskaintzen dira.

Goranzko komunikazioa edo «C2G» Irekian «herritarren eskaerak» atalaren bidez bideratzen da. Bertan erabiltzaileak «eskaera bat sortu» aukera aurkituko du, non «online» formulario simple bat bete beharko duen hurrengoa adieraziz (Irekia, 2016): eskaeraren izenburua edo gaia, Jaurlaritzak gauzatzeko proposatzen den ekintza edo informazio-eskari zehatzaren azalpen argia eta zer Saili egiten zaion eskaera. Eskaera gauzaturik, Eusko Jaurlaritzaren Sailek ahalik eta lasterren erantzuteko betebeharra dute berez. Geroago konprobatuko da zenbat denbora tardatzen duen batez beste Gobernuak erantzuten. Honi dagokionez, azpimarratu behar da Irekiak parte-hartze kualitatiboa bilatzen duela, erabiltzaile kantitateari garrantzia kenduz. Hala ere, ONTSIk (2013: 118) egindako ikerketak adierazten du EAEn *"inkestatuen %3,8 batek bakarrik ezagutzen duela Irekia"*; datu baikorregia ez dena kontuan izanik ezagutzen dutenen artean ere guztiak ez direla plataformaren erabiltzaile izango.

Gobernuak herritarren eskaera, komentario eta iritziei ematen dizkien erantzunak ez dira inoiz lotesleak izango eta ez dute arau-interpretaziorik ekarriko.

Azkenik, komunikazio horizontala dago. Irekiaren kasuan, elkarrizketa horizontalerako aukera ia edozein gunetan sortzea da posible; horrek abantaila handia suposatzen du inongo zalantzarik gabe. Behin «G2C» edo «C2G» noranzko bat hasita sortzen diren espazioetan, eta herritarrak edo gobernuak besteari lehenengoz erantzutean, jada posible da bi aktoreen arteko elkarrizketa horizontal bat hastea. Are gehiago, 2 komunikazio noranzkoetan gobernu eta herritarrez aparte, erabiltzaileek ere euren artean jardun dezakete; goranzko komunikazioaren kasuan gobernuak erantzun baino lehen ere erabiltzaileen arteko interakzioa posible da.

Komunikazioari dagozkion beste elementu batzuei erreparatuz, esan daiteke Irekia web atariaren azken bertsioa intuitiboa dela. Ondorioz, nahiko erabilerraza suertatzen da informatikako gaitasun maila ezberdina duten herritarrentzat. Hala ere, gogoratu beharra dago aurreko bertsioak astunagoak zirela eta beraz, diseinuan bilakaera baikorra izan duela webguneak. Goialdean argi identifikatzen dira atariaren sarbide ezberdinak («parte-hartzea», «Sailak», «agenda», «berriak», «bideoak eta argazkiak», «gizarte-sareak», «gobernu programa» eta «plan estrategikoak») sinpletasunaren adierazle, izan ere, hauek gainontzeko edukietara daramaten ateak dira. Irekia eleanitza da euskarazko, gaztelerazko eta ingelesezko bertsioak baititu eta gainera, desgaitasun bat duten pertsonentzako prestaturik dago. Eduki generikoen kudeaketari dagokionez, «kontaktua», «zer da irekia?», «laguntza», «bilaketa» eta «login/erregistroa» bezalako aukerak aurki ditzakegu. Sarbideen azpian albiste ezberdinen titularrak eskaintzen dira eta «bilaketa» aukerak, hitz bat sartzearekin, plataforma osoko edukiak bilatzea errazten du; albisteak barne. Informazioa etiketa ezberdinen arabera kategorizaturik dago «agenda» sarbidean Jaurlaritzako goi-karguen eta ekitaldi ezberdinen berri ematen da egutegi formatuan. Artxibo ezberdinak deskargatzeko aukera ere existitzen da komunikabideen probetxuari begira, batik bat. Erabiltzaileei begira, bakoitzak bere profilaren kudeaketarako sarbidea du eta, beste

gauzen artean, erabiltzaileak interesatzen zaizkion Sail edo politikarien jarduera jarrai dezake. Modu berean, ohartarazpen sistemak ditu erabiltzaileak: asteroko buletina bere posta elektronikoan jasotzea aktiba dezake, eskaera bat idazten duenean Jaurlaritzak jaso eta publikatu egin duela jakinarazten dion mezua jasotzen du, bere eskaerak erantzuna, iruzkin edo boto bat jasotzean jakinarazi egiten zaio... Momentu honetan herritarren eskura dago Irekiari buruzko balorazio edota hobekuntzak proposatzeko «hobetzen lagundu» sarbidea. Irekiak erabiltzaileek idatzitako testu oro moderaziorako sistema baten bidez filtratzen ditu argitaratu aurretik hitz desagoki edo diskriminatzaileak saihesteko. Webgune eta sare sozialetako kontuez gain, Irekiak mugikorrerako aplikazio bat du; zaharkituta dagoena eta ez dena batere ez intuitiboa.

Entzute aktiboak sare sozial, foro eta blogak bezalako kanalei egiten die erreferentzia. Irekiak erabiltzaile-kontuak ditu «Twitter», «Facebook», «Flickr» eta «YouTube» sare sozialetan eta blog propio bat, batez ere, gobernu jardunbidearen albisteak hedatzeko. Eusko Jaurlaritzak berak eta bere erakunde autonomiadunek ere kontuak dituzte gizarte-sare ezberdinetan. Hauek guztiak Irekia atariko goialdeko «gizarte-sareak» deituriko atalean ageri dira, gizarte-sareetarako gida eta Irekiaren Bloggerako sarbidearekin batera. Aipatu beharra dago kanal hauetako interakzioak ia hutsalak eta aldebakarrekoak (G2C) direla eta Eusko Jaurlaritzak ez du, publikoki behintzat, entzute aktibo sistematizaturik egiten.

Irekiak ekitaldi ezberdinen emanaldiak zuzenean eskaintzen ditu «TB online» atarian. «Streaming» bidez Eusko Jaurlaritzaren prentsaurreko eta Eusko Legebiltzarraren osoko bilkura zein batzordeak emititzen dira herritar eta bestelako aktoreen presentzia birtuala ahalbidetuz. Eguneko programazioaren berri ematen du eta pantaila anitzeko aukera; ekitaldi bat baino gehiago aldi berean emititzen badira, zein ikusi hautatzeko. Zuzeneko emisioez gain, herritarrak momentu oro eskuragarri ditu multimedia materialak «bideoak eta argazkiak» atalean, nahi edo ahal duenean ikus ditzan. Galerian bideoak Jaurlaritzaren sail ezberdin eta gaien

(Legebiltzarra, topaketak, kanpainak...) arabera antolatuta daude herritarrak errazago aurki dezan interesatzen zaiona.

«Gazte Irekia» ekimena Irekiaren elkarlanerako tresna berrien artean kokatuko litzateke. «Crowdsourcing» antzeko bat da, non Eusko Jurlaritzak Euskadi osoko ikastetxeei parte-hartzeko deialdia luzatzen dien. Adin-tarte zehatzetako ikasleei zuzenduta dago lehiaketa (betiere, irakasle baten laguntzaz) eta helburu orokorra Euskadi hobeto lortzeko gazteen iritzia eta sormena jasotzea da. Proposamen irabazlea Irekiako erabiltzaileen botoen eta epaimahai baten arabera erabakitzen da. 3 edizio burutu dira jadanik eta Jurlaritzak proposamen irabazlea, ikasleekin elkarlanean, benetako politika publiko bihurtzeko saiakera konpromisoa agertzen du. 1. edizioko proposamen irabazlea inplementatzeko garapen-bidean dago (Irekia, 2015).

Irekiak boto elektronikoa «parte-hartzea» ataleko 3 gune ezberdinetan ematea ahalbidetzen du. Lehenik, «herritarren eskaerak» gunean herritar ezberdinek Jurlaritzari planteatzen dizkioten eskaeren aurrean erabiltzaileak bere aldeko edo kontrako botoa eman dezake. Bigarrenik, «gobernuaren proposamenak» gunean Jurlaritzak herritarrei luzatzen dizkien proposamenei alde edo aurka bozkatzeko aukera du erabiltzaileak. Hirugarrenik, «inkestak» gunean Jurlaritzak herritarren iritzia, zenbait gai orokorrekiko, ezagutzeko galdera labur batzuk planteatzen ditu, non erabiltzaileak erantzun-kategoria ezberdinen artean aukera dezakeen. Aukeraketa egin ostean, kategoria bakoitzak momentura arte lortu duen babesa erakusten du ehunekotan. Bozketa elektronikoei ere pribatutasuna eta fidagarritasuna gorde behar dute. Irekian botoak anonimoki ematen dira eta beharrezkoa da erabiltzailea izatea bozkatzeko, nahiz eta horrek ez duen guztizko fidagarritasuna bermatzen geroago ikusiko den lez.

«Ticketing» delakoari dagokionez, Eusko Jurlaritzari eskaera bat helarazteko, formulario simple bat bete behar da, non beste gauzen artean, herritarrak zein Saili zuzentzen zaion argitu behar du. Aukera moduan Jurlaritzaren 9 Sailak eta «beste organo batzuk» ageri dira. Honek administrazioaren bideratze lana asko errazten du eskaera zuzenean erantzun behar duen organora doalako. Posiblea da erabiltzailea zalantzatan egotea eta ondorioz, «beste organo batzuk» aukerari ematea edo erratuta

ez dagokion Sail bati zuzentzea. Kasu horietan ez dago inolako arazorik administrazioak berak, barne irizpideen arabera, dagokion organora bideratzen baititu eskaerak. Gerta daiteke ohikoa baino denbora gehiago itxaron beharko duela herritarrak erantzuna jasotzeko; bideratze egokirako lanen atzerapena dela eta. Eskaeraren izaerari erreparatuz, aipatu beharra dago aurreko bertsioetan Irekiak eskaera mota definitzeko aukera ere ematen zuela. Hala, herritarrak bere eskaerak kontsulta, kexa edo iradokizun izaera zuen zehaztu behar zuen. Azkeneko bertsioan Gobernu Irekiaren Zuzendaritzak izaeren zehaztapena deuseztatu eta «eskaera» hitzean barnebidu ditu mota guztiak eraginkortasun eta sinplifikazio arrazoiak medio. Azkenik, aipatu beharra dago Irekiak ez diola eskaera bakoitzari identifikazio zenbaki bat esleitzen; seguruenik horretarako beharrik ez dagoelako. Beste administrazio batzuek, Bizkaiko Foru Aldundiak kasu, metodo hori erabiltzen du eskaeraren tramitazioa, jarraipena eta ebazpena errazteko; Irekiak, berriz, herritarren eskaerak publiko egiten ditu atarian eta horrek etengabeko elkarrizketa ahalbidetzen du Jaurlaritzarekin eta gainontzeko erabiltzaileekin. Hortaz, ez da beharrezkoa jarraipena egiteko identifikazio zenbakirik. Halaber, eskaera bakoitzean markagailu batek erantzun-denborari buruzko informazioa ematen du aditzera.

Azken tresna identifikatze seguruari erreferentzia egiten diona izango litzateke. Irekiaren kasuan, edozein herritarrek du aukera ataria bere osotasunean ikusteko www.irekia.euskadi.eus helbidean; informazio guztia, bideoak zein argazkiak ditu eskuragarri eta «parte-hartzea» ataleko herritarren eskaerak, gobernuaren proposamenak nahiz inkesten momentuko emaitzak ikus ditzake erabiltzaile izatearen beharrik gabe. Erabiltzaile-kontua parte-hartzeko da soilik nahitaezkoa. Herritarrak gobernuari eskaera bat luzatu, edozein gunetan botoa eman edota komentarioak egin nahi baditu, zenbait datu bete eta posta elektronikoko helbide baliodun batekin erregistratu beharko du. Sistema honek, boto elektronikoen kasuan aipatu den bezala, ez du bermatzen guztizko fidagarritasunik, izan ere, pertsona berberak nahi beste erabiltzaile-kontu sor ditzakeelako posta elektronikoko helbide ezberdinekin. Praktika hau erabiltzaileen artean ohikoa ez bada ere «Gazte Irekia» lehiaketaren kasu

konkretuan arazoak eragin ditu ikasleen irabazi nahiak bultzatuta. Herritarrek egiten dituzten eskaera arruntetan gutxi gorabeherako parte-hartzea, botoak emanez edota komentarioak eginez, 3-4 pertsonakoa izaten da askoz jota. Zentzu horretan atentzioa deitzen du «Gazte Irekia» lehiaketarako ikastetxe bakoitzak egiten duen proposamenean, herritar arrunten eskaeren leku berean publikatzen direnak, 200-300 pertsonako partaidetza izatea. Argi dago ikasleek beren proposamenaren alde eta gainontzekoenen kontra bozkatzeko kontuak sortzen dituztela. Seguruenik fidagarritasun eza horrek bultzatuta, Jaurlaritzak epaimahaiaren erabakiari indar handiagoa eman dio herri botoen aldean (Irekia, 2015).

Eusko Jaurlaritzaren Irekia plataformaren analisiarekin aurrera egiteko, jarraian Prieto-Martínez eta Ramírez-Alujasek (2014) proposatzen duten Parte-hartze Eskala (PhE) eredua aplikatuko zaio. Irekiak, fase ezberdinen bidez, lege proiektu edo aurreproiektu bat prozesu parte-hartzaile batera nola aplikatu erakusten du modu argian (Díaz eta Cortés, 2014). Eredu honen «noiz» dimentsioaz kontziente, prozesu parte-hartzaile horien faseak baliatuko dira dimentsio honetarako. PhE eredua irekia eta malgua den heinean, analisi eta prozesu konkretu hauen beharretara moldatuko da. Autoreen iradokizunei kasu eginez, analisi honetarako interesgarritzat jotzen dira erabili diren tresna teknologikoak eta gobernu maila kontuan edukitzea.

5. IRUDIA: Irekiako prozesu parte-hartzaile adibide bat.

The screenshot shows the Irekia platform interface. At the top, there is a navigation menu with categories: HERRITARREN ESKAERAK, GOBERNUAREN PROPOSAMENAK, GOBERNUAREN ERANTZUNAK, LEGEBILTZARREKO GALDERAK, HOBETZEN LAGUNDU, and NOLA PARTE HARTU. Below the menu is a search bar with the text 'Gobernuaren proposamenak'. The main content area features a large green banner for 'EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen berrikuspena (LAG)' with a 'KONPARTITU' button. To the right of the banner, there is a sidebar with social media information: #DOT_Euskadi, 3 parte hartze, Tagak (LAA - Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak, #DOT_residencial). At the bottom, there is a timeline of events: AJURKEZPENA (2015.eko uztailak 30, 2016.eko apirilak 25), EZTABAIDA (2016.eko apirilak 25, 2016.eko irailak 20), EKARPENAK (2016.eko apirilak 29, 2016.eko irailak 20), and ONDORIOAK (2016.eko irailak 21, 2016.eko abenduak 31).

Iturria: Irekia-Eusko Jaurlaritza.

Lehenik eta behin, «noiz» dimentsioari helduko zaio irudikatze grafikorako oinarria baita. Prozesu parte-hartzaileak fase ezberdinetan banatuta egotea ohikoa da, momentu bakoitzean helburu zehatzak ezberdinak direlako. Fase bakoitzaren baitan «zer» eta «nola» dimentsioak ere aztertuko dira analisia errazago eta ulergarriago egiteko. «Non», «zein», «tresna teknologikoak» eta «gobernu maila» aparte aztertuko dira faseen ondotik. PhE honen helburua Irekiako prozesu parte-hartzaileak, era orokorrean, deskribatzea denez, 4 fasetan osatuko da «noiz» dimentsioa (Irekia, 2016):

- 1. fasea (Informazio ematea): Zer dimentsioari dagokionez, lehenengo fasean elkarlan maila ez da oso altua «kontsultarako partaidetza» kategoriarekin bat egiten duelako. Modu tradizionalan funtzionatzen da lehendabiziko fase honetan; ezberdintasun bakarra bide elektronikoa erabiltzen dela da. Jaurlaritzaren esku dago zer eta noiz utzi herritarrei erabakitzen. Nola erabaki sistematizatuagoa dago, momentura arte faseen irizpidea errespetatu delako. Jaurlaritzak herritarrak deitzen ditu aurrera eraman nahi dituen lege proiektu, dekretu, plan, estrategia edo dena delakoaren berri eman eta hobetzeko. Hortaz, kasu honetan (1) kode-balioa duen «informazioa» mailan kokatzen gara; gobernuak bere proposamenari buruzko informazioa ematen die herritarrei euren iritzia era dezaten.

Nola dimentsioa bi kategoriatan banatzen da: gardentasuna eta deliberazioa. Gardentasuna funtsezko aurrebaldintza da kalitatezko partaidetza bideratzeko eta Irekiaren kasuan, Jaurlaritzak informazio egokia ematen duela esan daiteke. Hasieran, herritarra erabakia hartuko den testuinguruan kokatzeko sarrera bat egiten du; Prieto-Martín eta Ramírez-Alujasek (2014) eskatzen dutenarekin bat eginez. Jarraian, prozesu parte-hartzailearen nondik norakoan laburpen bat eskaintzen da. Horretan sakondu nahi bada, kasu batzuetan esteka bat dago eskuragarri prozesuaren egituratzea eta xehetasun guztiak kontsultatzeko. Era berean, multimedia materialen bitartez (bideoak, berriak, elkarrizketak, datu estatistikoak...) osatzen du prozesuari ekiteko informazioa. Honekin guztiarekin ondoriozta daiteke aurreneko fasean gardentasun maila altua dela; deliberazioa, ordea, ez da

existitzen fase honetan informazio eskaintza batera mugatzen delako; ez da inolako erabakirik hartzen.

- 2. fasea (Eztabaida): Fase honetan Irekiako prozesuak aurrerapauso bat ematen du elkarlan mailari dagokionez, baina «kontsultarako partaidetza» kategoriatik irten gabe. Gobernuak bere proposamenaren inguruko puntu edo galdera zehatz batzuk plazaratzen ditu eztabaida daitezzen. Gobernariak herritarren «feedbacka» jaso dezakete komunikaziorako kanal anizkoitz baten bitartez, izan ere, galdera bakoitzeko gune berezitu bat eskaintzen da, galdera guztiak ageri diren gune orokorraz gain. Espazio ezberdinen teilakatze horrek Eusko Jaurlaritzak planteatzen dituen puntuak edo erabiltzailearen beraren interesekoak direnak jorrazteko abagunea ematen du. Herritarrek eztabaidan parte har dezakete iritziak agertuz, arrazoiak azalduz, aldeko edo kontrako botoak emanez eta inkesta laburrak erantzunez. Zentzu horretan lehendabiziko fasean eskainitako informazioa eskuragarri izango da. Era berean, informazioa osatu ahal izango dute interesdunek beste dokumentu batzuei buruzko esteka edota erreferentziak aipatuta. Beraz, 2. faseko zer dimentsioak (2) kode-balioa duen «kontsulta» mailarekin egiten du bat.

Nola dimentsioari erreparaturik, gardentasun eta deliberazio mailak aztertu beharra daude. Eztabaidaren fase honetan berebiziko garrantzia du hasierako fasean eskaintzen den informazioak, berau baita parte-hartzaileek duten eztabaidarako baliabide nagusia. Horrez gain, eztabaidan egon daitezkeen alternatiba ezberdinak azalduz dira herritar eta gizarte zibileko gainerako aktoreen aldetik; Jaurlaritzaren aldetik, baina, ez dira argi zehazten proposamenera iristeko baloratu diren alternatiba ezberdinak, eta kasu gutxitan eskaintzen da parte-hartze prozesuaren jarraipenaren inguruko informazioa, Irekiaren bidez behintzat. Alde baikor bezala, jokoan dauden interes nagusiak egoki islatu eta eztabaidarako arauaren gakoak plazaratzen direla azpimarra daitezke. Horrenbestez, gardentasun maila ertaina dela ondorioztatzen da. Deliberazioari dagokionez, aipatu beharra dago fase honetan harreman komunikatiboak biziak izateko baldintzak ezartzen direla

eztabaida bideratzen den neurrian. Erabiltzaile den edozeinek bere arrazoi eta argudioak elkar bana ditzake beste parte-hartzaile eta Jaurlaritzarekin berarekin, komunikazio horizontaleko espazio ireki, anitz eta inklusiboan. Zentzu horretan deliberazio maila altua dela ondoriozta daiteke.

- 3. fasea (Ekarpenak): Zer dimentsioari erreferentzia eginez, fase honek elkarlan maila areagotzen du aurreko fasearekin konparatuz. Herritar eta elkarte/taldeek euren esku dituzte Eusko Jaurlaritzak egindako proposamenaren testu-zirriborroak aldaketak eta ekarpenak komentatzeko «Comt» tresna elektronikoen erabilerrazaren bidez. Era horretara Gobernuarekin harreman zuzenago bat izatea hobesten du fase honek gainontzeko erabiltzaileekiko baino, nahiz eta biak mantentzen diren. Ekarpenak Jaurlaritzak proposaturiko testuari berari egiten zaizkio eta horrek gobernariak gehiago inplikatzera behartzen ditu. Hala ere, aipatu beharra dago fase hau ez dagoela Irekiaren prozesu parte-hartzaile guztietan presente. Fase hau, hortaz, (3) kode-balioa duen «aholku ematea» mailan kokatzen da.


Nola dimentsioan arreta jarritz, 2. fasearen baldintza berberak mantentzen dira oraingoan ere. Salbuespen bakarra da fase honetan, eztabaidarako puntu solteak beharrez, Jaurlaritzak proposaturiko dokumentuari buruzko aholku eta hobekuntzak jasotzen dituela erabiltzaileen aldetik. Alde ona da eraginak sortuko dituen elementua (arau-testua) zuzenean aztertzeko beta duela herritarrak; alde txarra, berriz, arau bat aztertzeak suposa dezakeen zailtasun eta astuntasuna. Ondorioz, gardentasun maila ertaina izaten jarraituko du fase honetan. Deliberazio mailak atzera egingo du oraingoan, izan ere, 3. faseko komunikazio horizontaleko espazioak «C2G» modurako itxura hartzen hasten da. Honek eta arau bat lantzeak suposatzen duen esfortzu nahiz gaitasun minimo batzuen beharrak, deliberazioaren kalitatea murrizten du maila ertain batera.

- 4. fasea (Ondorioak): Prozesua ixten duen fase honetan gaien eskumena duen organoari helaraziko zaizkion azken dokumentuak argitaratzea da ohikoena. Azken dokumentuak interesdun guztien esku

egongo dira Irekian. Logikoa den bezala, lehenengoaren antzera, azken fase honetan ere zer dimentsioari dagokion elkarlan maila ez da oso altua, informazio emate batera mugatzen baita. Jaurlaritzak erabakitzen du ondorio moduan zer informazio eta nola jarri. Ondorioz, fase honi «kontsultarako partaidetza» kategoriako (1) kode-balioa duen «informazioa» maila dagokio.

Ez da gauza erraza fase honen ebaluazioa egitea parte-hartze prozesu bakoitzean modu ezberdinak erabiltzen baitira. Batzuetan dagokion organoari bidaliko zaion azken arau-testua jartzen da; ustez Irekiako eztabaidaren ondorio eta ekarpenak jasota dituen. Beste batzuetan, arauari edo prozesu parte-hartzaileari buruzko laburpentxo bat azaltzen da. Kasu gutxitan soilik argitaratzen da prozesu parte-hartzailearen xehetasun batzuk jasotzen dituen dokumentua. Alde horretatik argi geratzen da fase honetako gardentasun maila baxua dela orokorrean hartuta. Irekiaren prozesu ezberdinetako ondorioen fasean maiz errepikatzen da Jaurlaritzak laburpen moduko azalpen bat eskaintzea, beste gauza batzuen artean, "alegazioak eta jasotako iruzkinak aztertu ondoren behin betiko testua egin" dela adieraziz. Jarraian, arau-testua ikusteko aukera dago, baina azken dokumentu horretan ez da zehazten zeintzuk izan diren prozesuan egindako ekarpenak ezta nondik datozen. Halaber, gogoratu beharra dago Irekiako prozesu parte-hartzaileak ez direla lotesleak eta, beraz, gobernatzaileak egokien jotzen duen erabakia hartzeko gaitasuna mantentzen du deliberazioak zentzu guztia galdurik. Deliberazioa nulua da erabakia alde batekoa baita.

6. IRUDIA: Irekiako prozesu parte-hartzaile ereduaren Parte-hartze Eskema.



Iturria: Lanketa propioa.

Ereduaren irudikatze grafikoan ikus daitekeenez, «zer» dimentsioko maila ezberdinen balio-kodeak Prieto-Martínez eta Ramírez-Alujasek proposatzen duten ereduaren alderantzizko eran daude, hau da, txikitik handira. Erabaki hori hartzearen arrazoia grafikoaren esanahia errazago ulertzea da, izan ere, elkarlan maila altuagoa den fase horietan zer dimentsioak kanpoaldera egiten du barrualdera beharrean. Behin parte-hartze prozesuetako faseak azterturik, «Non», «zein», «tresna teknologikoak» eta «gobernu maila» dimentsioak landuko dira. Hasteko, non dimentsioak prozesu parte-hartzailearen erakundetze mailari egiten dio erreferentzia. Zenbat eta erakundetze maila altuagoa, orduan eta erabakitzeko gaitasun handiagoa izango du prozesuak. Azkeneko fasean esan bezala, Irekiako prozesuak ez dira lotesleak eta bertako interakzioetan adierazitakoek ez dute, inolaz ere,

arau-interpretaziorik ekarriko. Hemen aztergai ditugun prozesu parte-hartzaileak, beraz, «erakundetze organikoa» delako kategorian kokatuko lirateke Irekia izaera iraunkorra duen gobernu-organo iraunkor bezala jotzen bada. Irekia Eusko Jaurlaritzak aholkatzeko eta bere jardunbidearen kontrolerako gaitasuna duen kontsultarako organoa da.

Nor dimentsioak prozesuan duten aktoreak identifikatzea du helburu. Prieto-Martínez eta Ramírez-Alujasek (2014) proposatzen duten sailkapenari so eginez, Irekiako prozesu parte-hartzaileetan aktore politiko eta zibilak inplikatzeko dira. Aktore politikoaren artean Eusko Jaurlaritzak eta bere goi-kargudunak aurki daitezke; aktore zibilen artean, berriz, herritar soil eta talde zibilak. Logikoa den bezala, aktore bakoitzak modu ezberdinean eragiten du prozesuaren norabide eta ondorioetan. Argi eta garbi Jaurlaritzak aktore zentral bat da bere rola duen garrantzia dela eta; prozesuaren sustatzaile eta erabaki hartzailea da. Arestian komentatu denaren ildotik, Jaurlaritzaren esku dago zer erantzun eta zer ez, ekarpen fasea ezarri edo ez, ondorioak nola aurkeztu baita azken erabakia hartzea ere, prozesu ez-loteslea den heinean. Gobernuak bere Sail ezberdinetako funtzionario eta langileen bidez mantentzen du harremana Irekiako erabiltzaileekin. Ohikoa ez bada ere, kasu bakanetan, Jaurlaritzako goi-kargudunak hartzen dute parte kontu oso zehatz eta zuzenei erantzuteko. Aktore zibilen artean eragin handiena izan dezaketenak erabiltzaile diren herritar soilak dira. Edozein erabiltzailek prozesuaren dagoen fasean egonda ekarpenak egin ditzake aurrekoetan parte hartu ez badu ere. Irekiak partaidetza kualitatiboa bilatzen du eta horrek pertsona bakar baten iritzia ere Jaurlaritzak oso kontutan edukitzea ahalbidetzen du. Alabaina, zenbat eta erabiltzaile gehiago gauza berari erreferentzia egin, orduan eta presio handiagoa izango du Gobernuak azken dokumentuan kontuan edukitzeko. Talde eta elkarte zibilen parte-hartzea ez da ohikoa erabiltzaile bezala bideratzea, izan ere, Jaurlaritzak Irekiarekiko modu paraleloan abiatzen dituen prozesu presentzial edota Sailen egituraren parte diren batzorde edo kontseiluetan egiten dute. Jaurlaritzari dagokionez, erakundeko ordezkari eta langileak, zenbait adituak, jarduten dute prozesua; herritar soilak, ostera, modu boluntarioan parte-hartzen dute Irekian talde zibilak bezala.

Hala ere, azken hauek aditu moduan jardun daitezke prozesuan lantzen ari den gaia euren arloko gai sektoriala bada.

Bukatzeko, Prieto-Martínez eta Ramírez-Alujas autoreen gomendioak jarraikiz, «tresna teknologikoak» eta «gobernu maila» dimentsioak jorratuko dira. Irekiako parte-hartze prozesu baten erabiltzen diren tresna teknologiko nagusiak boto elektronikoa, inkestak, ikus-entzunezko materialak, dokumentuak deskargatzeko aukera, eztabaidarako foroa eta sare sozialen integrazioa dira. Gobernu mailari dagokionez, espainiar Estatuko lurralde antolaketari begira, Irekiako prozesu parte-hartzaileak eremu autonomikoan kokatzen dira; Euskal Autonomia Erkidegokoan hain zuzen ere. Beste sailkapen batzuek erregio/estatu mailan kokatuko lukete. Estatuz gaindiko sailkapen bati erreparatuz, Europar Batasuneko 1059/2013 Erregelamenduak⁸ lurralde unitateen nomenklatura estatistiko komuna (NUTS) ezartzen du. Honen arabera NUTS 2 mailan kokatuko litzateke EAE, ES21 kodearekin.

Irekia plataformaren analisiarekin bukatze aldera, «C2G» edo goranzko komunikazioaren bidez herritarrek Eusko Jaurlaritzari egiten dizkioten eskaerak aztertu dira 2015eko urtarriletik 2016ko maiatzera datuak jasotzeko protokolo baten bidez. Horretarako, Irekia plataformako «herritarren eskaerak» atalean ikusgai dauden proposamenak aztertu dira banan-banan, adierazitako denbora tartean, bakoitzaren gaia, gai horren izaera eta Jaurlaritzak eskaerari erantzuteko hartu duen denbora jaso. Guztira 442 izan dira aztertutako kasuak. Datuak kalkulu estatistikoen programa batekin tratatu ostean, jarraian aurkezten diren emaitzak lortu dira.

⁸ Reglamento (CE) Nº 1059/2003 del Parlamento europeo y del Consejo:
<http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:32003R1059&from=EN>

3. TAULA: Herritarrek Irekian egiten dituzten eskaeren gaien arlokako maiztasunak.


Gai arloa	Maiztasuna (%)
Informazioa eta gardentasuna	16,97
Osasuna	16,29
Hezkuntza eta kultura	14,71
Arauek eta justizia	11,09
Azpiegiturak eta garraioak	8,82
Etxebizitza, enplegua eta prestazioak	7,47
Hizkuntza politika (euskara)	6,56
Ekonomia eta fiskalitatea	4,98
Ingurumena eta landa politika	3,62
Segurtasuna eta berdintasuna	2,94
Beste batzuk	6,56
	N = 442
	100

Iturria: Lanketa propioa.

Herritarrek Irekian egiten duten eskaeren gehiengoa Eusko Jaurlaritzari edozein motatako informazioa eskatzeko edo gardentasun kontuei zuzendutakoak dira %16,97 bateko maiztasunarekin. Gertutik bizitza eredu eta osasungintza zerbitzuei loturiko gaiak batzen dituen osasun arloak jarraitzen du %16,29 bateko maiztasunarekin. Ondoren, hezkuntza eta kultura arloa dator %14,71 bateko maiztasunarekin. Laugarren postuan arau-interpretazioak, -betetzeak, -kontsultak, -aldaketak eta justiziarekin zerikusia duten gaiak barnebiltzen dituen arloa dago %11,09 bateko maiztasunarekin. Hurrengoak azpiegitura, instalazioa eta garraibideei lotutako gaiak (%8,82); gizarte politikak batzen dituen etxebizitza, enplegua eta prestazioak arloa (%7,47); hizkuntza politika (%6,56); sustapen ekonomikoa, lehiakortasuna, industria eta zerga kontuak (%4,98); ingurumena eta landa politika (%3,62); eta segurtasuna eta berdintasuna (%2,94) dira. Azkenik, esan beharra dago «beste batzuk» arloan gainontzekoekin bat etortzen ez diren gaiak sartzen direla. Kontuan eduki behar da Irekian gehienbat herritar soilek hartzen dutela parte modu ez-egituratu batean nolabait esateko. Hau da, eskaeren bidez edozein gai

plazaratzeko askatasuna dago eta horrek aniztasun itzel bat ahalbidetzen du; horren adierazgarri izanik arlokako maiztasunen ehuneko baxuak. 2. taula honetako emaitzek, hein handi baten, arestian aipatu den ONTSIren (2013) txostenekoekin bat egiten duela esan daiteke.

7. IRUDIA: Euskal herritarren informazio publikoko eskaera eta bilatzeak.



Iturria: ONTSI (2013).

7. irudiak Euskadiko herritarrek gehien eskatzen eta bilatzen duten informazio publikoa osasungintza, enplegu/langabezia/pentsioak eta hezkuntza arloei lotutakoak direla adierazten du; lan honetako 2. taulak, ostera, informazioa/gardentasuna, osasuna eta hezkuntza/kultura direla arlorik aipatuena azaleratzen du. Hortaz, oso adierazgarria da bietako emaitzek osasun eta hezkuntza arloan bat egitea.

4. TAULA: Herritarrek Irekian egiten dituzten eskaerek duten izaerari dagozkien maiztasunak.

Gaien izaera	Maiztasuna (%)
Gertukoa/pertsonala/konkretua	59,95
Orokorra/kolektiboa	40,05
N = 442	100

Iturria: Lanketa propioa.

Taulak Irekiako erabiltzaileek 2015eko urtarrilaren eta 2016ko maiatzaren artean egindako eskaeretako gaien izaera erakusten du. Honen arabera gaien gehiengoa, %59,95 bateko maiztasunarekin, herritarrek gertutik bizi dituztenak dira: etxe ingurukoak, auzokoak, herrikoak, pertsonalak/familiartekoak edota kontu oso espezifikoak; planteamendu kolektiboak dituztenak, aldiz, %40,05 bateko maiztasuna lortzen dute. Proposamen hauek orokorrakoak dira; norbanakoaz eta bere ingurukoaz haratago, komunitate edo gizarte jakin baten probetxurako diren ikuspegi globaleko proposamenak barnebiltzen dituztenak.

5. TAULA: Herritarrek Irekian egiten dituzten eskaeren gaien eta hauen izaeraren arteko erlazioa.

Gai arloa	Gaiaren izaera (%)	
	Gertukoa/pertsonala/konkretua	Orokorra/kolektiboa
Informazioa eta gardentasuna	74,67	25,33
Osasuna	50,00	50,00
Hezkuntza eta kultura	60,00	40,00
Arauek eta justizia	67,35	32,65
Azpiegiturak eta garraioak	69,23	30,77
Etxebizitza, enplegua eta prestazioak	57,58	42,42
Hizkuntza politika (euskara)	55,17	44,83
Ekonomia eta fiskalitatea	36,36	63,64
Ingurumena eta landa politika	50,00	50,00
Segurtasuna eta berdintasuna	38,46	61,54
Beste batzuk	62,07	37,93

Iturria: Lanketa propioa.

Behin eskaeretako gaien arlokako eta izaerazko maiztasun analisia eginda, bi aldagaiak gurutzatuko dira orain. Hartara, arlo bakoitzaren barnean gaien izaera nola banatzen den ikusi ahal izango da. Datuetan ikus daitekeen bezala, 11 arloetatik 7tan gertukoak/pertsonalak/konkretuak diren gaiak gailentzen dira, batez ere, «informazioa eta gardentasuna» alorreko %74,67 nabarmendu behar delarik; «ekonomia eta fiskalitatea» zein «segurtasuna eta berdintasuna» alorretan, berriz, izaera orokor/kolektiboko gaiak nagusitzen dira. Seguruenik alor hauek herritarra ikuspegi globaleko gaiak planteatzera bultzatzen dute izaera makrogoa duten pertzepzioa dela eta. Azkenik, badira alde batera ez bestera jotzen ez duten 2 salbuespen: «osasun» eta «ingurumena eta landa politika» arloa. Bakoitzak %50 bateko maiztasuna du izaera mota bakoitzean. Honek jakinarazten du arlo hauek mikroa eta makroaren arteko bereizketa gainditzen dutela herritarren pertzepzioan; zeharkakoak direla alegia.

6. TAULA: Eusko Jaurlaritzak erantzuten dituen eskaera kopurua eta erantzuteko ematen duen denbora.


Eskaerei erantzuna		(%)
Erantzundakoak	$N_1=397$	89,82
<ul style="list-style-type: none"> - Batez besteko erantzun-denbora: 13 egun <li style="margin-left: 20px;">$\sigma = 29,32$ $Me = 4$ - Erantzun-denbora maximoa: Urtebete - Erantzun-denbora minimoa: 14 minutu 		
Ez erantzundakoak	$N_2=45$	10,18
N = 442		100

Iturria: Lanketa propioa.

Irekiako «herritarren eskaerak» atalaren analisiarekin bukatzeko, Eusko Jaurlaritzak erabiltzaileek egindako zenbat proposamenei erantzun dien eta zenbati ez, eta erantzun dituenen artean horretarako eman duen denbora aztertu da. 2015eko urtarrila eta 2016ko maiatza bitartean Jaurlaritzak eskaeren %89,82 erantzun ditu eta, hortaz, %10,18 erantzun gabe daude oraindik; 10 eskaeretatik 1ek ez du erantzuna jaso azterturiko denbora

tartean. Eraitza honek ere guztiz bat egiten du ONTSI (2013) behatokiaren azterlanean ageri denarekin. Bertan esaten da administrazio publikoari kontsultak egin izan dizkioten herritarren %90 batek erantzuna jaso duela espainiar Estatuan.

8. IRUDIA: Administrazio publikotik beren eskaerari erantzuna jaso duten herritar kopurua.



Iturria: ONTSI (2013).

Erantzundakoen artean, herritarrek 13 egun itxaron behar dituzte batez beste Gobernuaren ihardespena jasotzeko. Eskaera batek itxaron izan behar duen denbora maximoa 365 egunekoa izan da eta minimoa 14 minutukoa. Muturreko balio horien kontrasteak desbideratze tipikoa altua izatea eragiten du (29,32 egun) eta ondorioz, batezbestekoa distorsionatu egiten da. Kasu hauetan maiztasun-banaketaren zentroan gertatzen dena islatzeko, fidagarriagoa izaten da mediana erabiltzea batezbestekoa baino estatistiko jasankorragoa delako. Mediana 4 egunekoa dela jakinda, errealitatea desitxuratuko litzateke batezbestekoaren 13 egunekin bakarrik geldituta.

5. ONDORIOAK

Gradu Amaierako Lan honetan 2010. urtean Eusko Jaurlaritzak gobernu irekiko politikak aplikatzen hastea erabaki zuenetik gaur egunerako analisi bat egin da. Zentzu horretan marko teorikoaren arabera hainbat hipotesi formulatu dira gobernu estrategia honen politiken aspektu ezberdinak lantzeko. Hartara, Euskadiko gobernu irekiaren 6 urteetako ibilbidearen lehengo balorazio orokor bat ondorioztatzea posible izan da.

Lehenengo hipotesiak 2010ean gobernu irekiko politikak aplikatzen hasi zirenetik gaur egunera euskal herritarrek Jaurlaritzarekiko duten konfiantza maila hobetu dela baieztatzen du. Aztertutako datuen bilakaerak erakusten du joera positibo bat dagoela herritarrek Gobernuarekiko duten konfiantzan. Gardentasun mailak izugarri egin du gora 6 urtetan eta herritarrek Jaurlaritzarekiko duten konfiantzaren tendentziarekin bat doala ematen du. Biak abiatzen dira ia puntu beretik eta goranzko tendentzia mantentzen dute, azken urteetan geldieran geratzen diren arte: Gardentasuna «INCAU» indizeko maximoan eta herritarren konfiantza %65 baten (EBko altuena 2014an). Hortaz, zuzena da esatea gobernu irekiko politikak aplikatzen diren urtetik herritarrek Jaurlaritzarekiko duten konfiantza mailak gora egin duela, nahiz eta ezin den erlazio kausalik ezarri konfiantzan bestelako faktore askok ere eragiten dutelako.

Bigarren hipotesiak dio 2010ean gobernu irekiko politikak aplikatzen hasi zirenetik gaur egunera arte adineko pertsonak pairatzen duten eten digitala areagotu egin dela Euskadin. Eustaten datuek adierazten dute 2010. urtetik 2015.era biztanleriaren erabilera nabarmen handituz joan dela Euskadin; 16 eta 74 urte bitarteko milioi bat erabiltzailetik, milioi bat eta lauhun mila ingurura. Horien artean deigarria da oso 55 urte edo gehiagokoen erabileraren areagotzea adin tarte guztien artean adierazgarriena izatea. Azken datua 2015ari dagokio eta 45 urte eta gehiagokoen artean %53,7 batekoa ziren Interneten erabiltzaileak. Hau da, hipotesia ezin da onartu adinekoen pertsona ez delako areagotu, baina egia da eten digitalak sektore honetan oraindik ere handia izaten jarraitzen duela, beste adin tarte batzuekin konparatzen bada.

Hirugarren hipotesiak dio Eusko Jaurlaritzak gobernu irekiaren bidezko partaidetza bideratzeko, IKTek eskaintzen dituzten tresna gehienak martxan jarri dituela. Telefónica fundazioko txostenean zehazten diren tresna teknologikoak oinarri harturik egin den analisian, egiaztatu da Irekia plataformak ia guztiak inplementatu dituela: goranzko, beheranzko eta komunikazio horizontala bideratzeko espazioak, eleaniztasuna, desgaituentzako moldatua, sare sozialen integrazioa, eduki generikoen kudeaketa, ohartarazpen sistemak, «login» bidezko identifikatze-segurua, erabiltzaile kontua/profila, moderazio sistema, gizarte sareentzako gida, bloga, «streaming» bidezko emanaldiak, «crowdsourcing» erako lehiaketa, boto elektronikoa, inkesta digitalak, ticketing eta kontrolerako markagailuak. Honek gobernu irekiaren partaidetzarako IKTek duten garrantzia uzten du agerian. Sare sozialen entzute aktiboa da Jaurlaritzak sistematikoki garatzen ez duen tresna bakarra. Horrenbestez, hipotesia egiaztatzen da.

Laugarren hipotesiaren arabera Irekia plataformaren bidezko prozesu parte-hartzaileak izaera kontsultibotik haratago doaz. Parte-hartze Eskemaren «zer» dimentsioaren bidez, Irekiako prozesuen lau faseak aztertu dira eta konprobatu da laurak ez doazela kontsultarako partaidetzaren mailatetik haratago. Hau da, Irekiako prozesuak ez dira partaidetza kolaboratiboko kategoriak exijitzen dituen erabakitzeko gaitasunaren eskuordetzera iristen. Eskuordetzerik egiten ez den kategoria bereko elkarlan mailara ere ez dira heltzen, izan ere, Jaurlaritzak berak ateratzen ditu ondorioak eztabaidatik (herritarrekin batera egin gabe) eta hauek ez dute zertan gobernariaren azken erabakian eragin. Era berean, Irekiaren baldintzetan argi eta garbi ezartzen da bertan adierazitakoek ez dutela izaera loteslea izango ezta arau-interpretaziorik ekarriko. Honengatik guztiagatik 4. hipotesia baztertu egingo da.

Bosgarren hipotesiak Irekia plataformaren bidezko prozesu parte-hartzaileak gardentasun maila altukoak direla planteatzen du. Irekiako parte-hartze prozesuen ereduak deskribatzeko erabili den Parte-hartze Eskemako «nola» dimentsioak azalera du prozesuen 4 faseetatik gardentasun maila altukoa bakarra dela, aurrenekoa alegia. 2. eta 3. faseak

gardentasun maila ertainekoak dira eta azkena, berriz, baxukoa. 1. fasea, informazio ematearena da eta, bere izenak dioen moduan, material asko jartzen da Irekiako erabiltzailearen esku. Baina hasierako ugaritasun hori murriztuz doa faseetan aurrera egin heinean. Ondorioen fasean, aurreko hipotesiaren egiaztatzean azaldutakoaren bidetik, gardentasuna baxua da eztabaidaren ondorioak Jaurlaritzak berak ateratzen dituelako eta askotan dagokion organoari bidaliko zaion azken arau-testua jartzen duelako, Irekiako prozesuan egin diren ekarpenak zeintzuk izan diren zehaztu barik. Beraz, ezin da esan Irekiako prozesu parte-hartzaileak gardentasun maila altukoak direnik, oro har, maila ertainekoak baizik.

Seigarren hipotesiak dio 2015. urtetik 2016ko maiatzera arte Irekian herritarrek egin dituzten eskaeren gehiengoa osasun arloari lotuta daudela. Hipotesi honek egiten duen baieztapena ezin da, berez, bere osotasunean onartu. Lan honek lortutako emaitzen arabera Irekiako eskaera gehienak informazio-eskari eta gardentasun kontuei lotuta daude. Gero datoz osasun eta hezkuntza/kultura arloa. Baina kontuan izan behar da datu hauek lortzeko, eduki azterketa bat eraman dela aurrera. Teknika mota hau erabiltzean ohikoa da ikerketa bakoitzak bere kategoria propioak sortzea, azterketa aurrera doan heinean, eta horrek beste ikerketa batzuetakoekin bat ez egitea eragin dezake. Hala ere, ez da gutxiesteko gauza Gradu Amaierako Lan honen eta hipotesia formulatzeko erabili den ONTSI behatokiaren emaitzek adierazten dituzten lehenengo 3 gai eskatuenetatik 2k (osasuna eta hezkuntza) kointziditzea.

Zazpigarren hipotesiak 2015. urtetik 2016ko maiatzera arte Irekian herritarrek egindako eskaeren gehiengoak izaera pertsonal, konkretu edota gertukoa duela aipatzen du. Eduki azterketatik ateratako datuen maiztasunek argi uzten dute gutxi gora behera eskaeren %60 izaera horretakoak direla eta gainerako %40 planteamendu orokor edo kolektibokoak. Beraz, hipotesia zuzena da. Baieztapen honek marko teorikoko Villoriak aipatzen duen «close to home» joerako partaidetzarekin bat egiten du. Hau da, indibidualismoaren areagotzeak politikarekiko inplikazioa norbanakoaren behar, interes eta ingurura mugatu duela. E-

partaidetzak joera horri bide eman dio herritar soilen parte-hartzea ahalbidetzen duen heinean.

Azkeneko hipotesiak Eusko Jaurlaritzak, 2015. urtetik 2016ko maiatzera arte, herritarrek Irekian egindako eskaeren %90 inguru erantzun dituela baieztatzen du. Hipotesia ONTSI txostenaren datuetan oinarrituta dago, eta Irekiako eskaeren erantzun-denboraren eduki azterketan jasotako datuek formulatutakoa bete-betean baieztatzen dute. Herritarrek Irekiaren bidez Jaurlaritzari egiten dizkioten eskaeren %89,92 batek jasotzen du erantzuna eta batez beste 13 egun itxaro behar dira horretarako. Hortaz, hipotesia onartzen da.

BIBLIOGRAFIA

BOJÓRQUEZ, J. A. (2012). "La caja negra del Estado: el reto del gobierno abierto", Hofmann, A., Ramírez-Alujas, A. eta Bojórquez, J. A. (Koord.), *La promesa del gobierno abierto*, 2. kapitulua, 165-190. orr. Mexiko eta Txile: ITAIP. InfoDF. Hemen eskuragarri:

<http://inicio.ifai.org.mx/Publicaciones/La%20promesa%20del%20Gobierno%20Abierto.pdf>

2015eko abenduaren 17an kontsultatua.

CALDERÓN, C. (2014). "Participación: ¿Dónde está el ciudadano?", Calderón, C. (Koord.), *Guía práctica para abrir Gobiernos. Manual de «Open Government» para Gobernantes y Ciudadanos*, 4. kapitulua, 103-116. orr. Madril: Goberna América Latina. Escuela de Política y Alto Gobierno. Instituto Universitario de Investigación Ortega y Gasset. Hemen eskuragarri:

http://www.gobernaamericalatina.org/c/document_library/get_file?uuid=d30d9ded-ee65-4c1e-b634-ecb99cd8525a&groupId=47165

2015eko azaroaren 24an kontsultatua.

COROJAN, A. eta CAMPOS, E. (2011). "Gobierno abierto: alcance e implicaciones", Calderón, I. eta Plaza, M. (Koord.). Fundación Ideas, *Colección Documentos de Trabajo*, martxoa. Hemen eskuragarri:

<http://web.psoe.es/source-media/000000555000/000000555311.pdf>

2016ko urtarrilaren 3an kontsultatua.

COROJAN, A. eta CAMPOS, E. (2012). "Estado del arte del gobierno abierto: promesas y expectativas", Hofmann, A., Ramírez-Alujas, A. eta Bojórquez, J. A. (Koord.), *La promesa del gobierno abierto*, 2. kapitulua, 119-136. orr. Mexiko eta Txile: ITAIP. InfoDF. Hemen eskuragarri:

<http://inicio.ifai.org.mx/Publicaciones/La%20promesa%20del%20Gobierno%20Abierto.pdf>

2015eko abenduaren 17an kontsultatua.

CRUZ-RUBIO, C. N. (2014). "¿Qué es (y qué no es) gobierno abierto? Una discusión conceptual", *Eunomía. Revista en Cultura de la Legalidad*, 8. zk., martxoa-abuztua, 35-53. orr.

DE LOS RÍOS, N. (2013). "Gobierno Abierto". *LLigall: revista catalana d'arxivística*, 35. zk., iraila, 139-150. orr. Hemen eskuragarri:

<http://www.arxivars.com/index.php/documents/publicacions/revista-lligall-1/lligall-35-1/1354-08-gobierno-abierto/file>

2016ko urtarrilaren 3an kontsultatua.

DE LOS RÍOS, N. eta ORTÍZ DE ZARATE, A. (2012). "Gobierno abierto, la experiencia del País Vasco (Irekia y Open Data Euskadi)", Hofmann, A., Ramírez-Alujas, A. eta Bojórquez, J. A. (Koord.), *La promesa del gobierno abierto*, 6. kapitulua, 491-504. orr. Mexiko eta Txile: ITAIP. InfoDF. Hemen eskuragarri:

<http://inicio.ifai.org.mx/Publicaciones/La%20promesa%20del%20Gobierno%20Abierto.pdf>

2015eko abenduaren 17an kontsultatua.

DÍAZ, A. eta CORTÉS O. (2014). *Gestión inteligente de las redes sociales en la Administración pública*. Oñati: IVAP-Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea.

DUPUY, J. eta PÉREZ, H. (2012). "Estado Gobierno abierto y publicidad oficial: de la teoría a la práctica", Hofmann, A., Ramírez-Alujas, A. eta Bojórquez, J. A. (Koord.), *La promesa del gobierno abierto*, 2. kapitulua, 119-136. orr. Mexiko eta Txile: ITAIP. InfoDF. Hemen eskuragarri:

<http://inicio.ifai.org.mx/Publicaciones/La%20promesa%20del%20Gobierno%20Abierto.pdf>

2015eko abenduaren 17an kontsultatua.

FORONI, N. (2014). "Erakundeak eta parte hartzea: paradigma berri bat elkarrekin eraikiz?", *Jakin*, 203. zk., uztaila-abuztua, 31-48. orr.

GASCÓ, M. (2014). "Qué es gobierno abierto (y qué no lo es)", Calderón, C. (Koord.), *Guía práctica para abrir Gobiernos. Manual de «Open Government» para Gobernantes y Ciudadanos*, 9-22. orr. Madril: Goberna América Latina. Escuela de Política y Alto Gobierno. Instituto Universitario de Investigación Ortega y Gasset. Hemen eskuragarri:

http://www.gobernaamericalatina.org/c/document_library/get_file?uuid=d30d9ded-ee65-4c1e-b634-ecb99cd8525a&groupId=47165

2015eko azaroaren 24an kontsultatua.

GRAELLS, J. (2012). "El arte de gobernar en abierto. Ideas y experiencias desde Cataluña", Hofmann, A., Ramírez-Alujas, A. eta Bojórquez, J. A. (Koord.), *La promesa del gobierno abierto*, 2. kapitulua, 119-136. orr. Mexiko eta Txile: ITAIP. InfoDF. Hemen eskuragarri:

<http://inicio.ifai.org.mx/Publicaciones/La%20promesa%20del%20Gobierno%20Abierto.pdf>

2015eko abenduaren 17an kontsultatua.

INSULZA, J. M. (2012). Hofmann, A., Ramírez-Alujas, A. eta Bojórquez, J. A. (Koord.), *La promesa del gobierno abierto*, atariko hitzak, 9-12. orr. Mexiko eta Txile: ITAIP. InfoDF. Hemen eskuragarri:

<http://inicio.ifai.org.mx/Publicaciones/La%20promesa%20del%20Gobierno%20Abierto.pdf>

2015eko abenduaren 17an kontsultatua.

IREKIA (2015). *Gazte Irekia ekimenaren hirugarren edizioa*. Eusko Jaurlaritza. Hemen eskuragarri:

<http://www.irekia.euskadi.eus/eu/debates/1063-tercera-edicion-iniciativa-gazte-irekia?stage=presentation>

2016ko maiatzaren 1ean kontsultatua.

IREKIA. Eusko Jaurlaritza. Hemen eskuragarri: www.irekia.euskadi.eus

MARTÍNEZ, R. (2012). "Gobierno abierto: ¿Más gobierno o más ciudadanía", Hofmann, A., Ramírez-Alujas, A. eta Bojórquez, J. A. (Koord.), *La promesa del gobierno abierto*, 2. kapitulua, 137-163. orr. Mexiko eta Txile: ITAIP. InfoDF. Hemen eskuragarri:

<http://inicio.ifai.org.mx/Publicaciones/La%20promesa%20del%20Gobierno%20Abierto.pdf>

2015eko abenduaren 17an kontsultatua.

OSZLAK, O. (2013). "Gobierno abierto: hacía un nuevo paradigma de gestión pública". OEA, *Colección de documentos de trabajo sobre e-gobierno 5*, iraila. Hemen eskuragarri:

<https://www.oas.org/es/sap/dgpe/pub/coleccion5RG.pdf>

2016ko otsailaren 23an kontsultatua.

ONTSI (2013). *Estudio de la demanda y uso del Gobierno Abierto en España*. Madrid: Observatorio Nacional de las Telecomunicaciones y de la SI. Hemen eskuragarri:

http://www.ontsi.red.es/ontsi/sites/default/files/demanda_y_uso_de_gobierno_abierto_en_espana.pdf

2015eko abenduaren 19an kontsultatua.

PRECHT, A. eta HUERTA, H. (2012). "Gobierno abierto: la experiencia de Chile", Hofmann, A., Ramírez-Alujas, A. eta Bojórquez, J. A. (Koord.), *La promesa del gobierno abierto*, 6. kapitulua, 401-420. orr. Mexiko eta Txile: ITAIP. InfoDF. Hemen eskuragarri:

<http://inicio.ifai.org.mx/Publicaciones/La%20promesa%20del%20Gobierno%20Abierto.pdf>

2015eko abenduaren 17an kontsultatua.

PRIETO-MARTÍN, P. eta RAMÍREZ-ALUJAS A. V. (2014). "Caracterizando la participación ciudadana en el marco del Gobierno Abierto", *CLAD Reforma y Democracia*, 58. zk., otsaila, 61-100. orr. Hemen eskuragarri:

<http://old.clad.org/portal/publicaciones-del-clad/revista-clad-reforma-democracia/articulos/058-Febrero-2014/Prieto.pdf>

2016ko martxoaren 16an kontsultatua.

RAMÍREZ-ALUJAS, A. V. (2011). "Open Government y Gobernanza Colaborativa: El (inevitable) cambio hacia un nuevo paradigma de Gobierno y Gestión Pública. Estado del arte, desafíos y propuestas". AECPAren X. Kongresua, *La política en red*, irailak 7-9, Murtzia. Hemen eskuragarri:

<http://www.aecpa.es/uploads/files/modules/congress/10/papers/555.pdf>

2016ko martxoaren 24an kontsultatua.

RAMÍREZ-ALUJAS, A. V. (2012). "Gobierno abierto es la respuesta: ¿cuál era la pregunta?". *Más poder local*, 12. zk., iraila, 14-22. orr. Hemen eskuragarri:

<http://www.maspoderlocal.es/files/articulos/92-F50524f44921347571524-articulo-1.pdf>

2015eko azaroaren 24an kontsultatua.

RAMÍREZ, O. eta SALVADOR, M. (2015). "¿Del Gobierno Digital al Gobierno Abierto? Iniciativas para transformar la gestión de recursos humanos con un componente tecnológico y cambio institucional". AECPAren XII. Kongresua, *¿Dónde está el poder hoy?*, uztailak 13-15, Donostia. Hemen eskuragarri: <http://www.aecpa.es/uploads/files/modules/congress/12/papers/1197.pdf>
2015eko azaroaren 22an kontsultatua.

RUVALCABA, E. A. (2015). "El estudio del Open Government: Hacia una categorización de la literatura internacional". AECPAren XII. Kongresua, *¿Dónde está el poder hoy?*, uztailak 13-15, Donostia. Hemen eskuragarri: <http://www.aecpa.es/uploads/files/modules/congress/12/papers/1403.pdf>
2016ko otsailaren 11n kontsultatua.

SUBIRATS, J., PARÉS, M. eta BLANCO, I. (2009). "Calidad democrática y redes de gobernanza: evaluar la participación desde el análisis de políticas públicas", Parés M. (Koord.), *Participación y calidad democrática: evaluando las nuevas formas de democracia participativa*, 367-418. orr. Bartzelona: Ariel.

TELFÓNICA FUNDAZIOA (2013). *Las TIC en el gobierno abierto: transparencia, participación y colaboración*, Sáinz R. M. (Koord.). Bartzelona: Ariel. Hemen eskuragarri: [http://www2.congreso.gob.pe/sicr/cendocbib/con4_uibd.nsf/2ECB3D5568C5F66205257F1400137A74/\\$FILE/las_tic_en_el_gobierno_abierto.pdf](http://www2.congreso.gob.pe/sicr/cendocbib/con4_uibd.nsf/2ECB3D5568C5F66205257F1400137A74/$FILE/las_tic_en_el_gobierno_abierto.pdf)
2016ko martxoaren 27an kontsultatua.

VILLORÍA, M. (2012). "El gobierno abierto como subsistema de políticas: una evaluación desde el institucionalismo discursivo", Hofmann, A., Ramírez-Alujas, A. eta Bojórquez, J. A. (Koord.), *La promesa del gobierno abierto*, 2. kapitulua, 69-100. orr. Mexiko eta Txile: ITAIP. InfoDF. Hemen eskuragarri: [http://inicio.ifai.org.mx/Publicaciones/La%20promesa%20del%20Gobierno%20Abie](http://inicio.ifai.org.mx/Publicaciones/La%20promesa%20del%20Gobierno%20Abierto.pdf)
[rto.pdf](http://inicio.ifai.org.mx/Publicaciones/La%20promesa%20del%20Gobierno%20Abierto.pdf)
2015eko abenduaren 17an kontsultatua.

XARXA D'INNOVACIÓ PÚBLICA (2014). *42 voces sobre el gobierno abierto*. Hemen eskuragarri: <http://www.xarxaip.cat/wp-content/uploads/2014/04/42-veus1.pdf>
2016ko urtarrilaren 4an kontsultatua.

ERANSKINAK

Kalkulu estatistikoaren programaren bidez lortutako jatorrizko taulak ageri dira jarraian:

Eskaeraren gaia

<i>Etiqueta de Valor</i>	<i>Valor</i>	<i>Frecuencia</i>	<i>Porcentaje</i>	<i>Porcentaje Válido</i>	<i>Porcentaje Acumulado</i>
Osasuna	1	72	16,29	16,29	16,29
Azpiegiturak eta garraioak	2	39	8,82	8,82	25,11
Arauk eta justizia	3	49	11,09	11,09	36,20
Ingurumena eta landa politika	4	16	3,62	3,62	39,82
Segurtasuna eta berdintasuna	5	13	2,94	2,94	42,76
Ekonomia eta fiskalitatea	6	22	4,98	4,98	47,74
Hezkuntza eta kultura	7	65	14,71	14,71	62,44
Hizkuntza politika, euskara	8	29	6,56	6,56	69,00
Informazioa eta gardentasuna	9	75	16,97	16,97	85,97
Etxebizitza, enplegua eta prestazioak	10	33	7,47	7,47	93,44
Beste batzuk	11	29	6,56	6,56	100,00
<i>Total</i>		442	100,0	100,0	

Eskaeraren izaera

<i>Etiqueta de Valor</i>	<i>Valor</i>	<i>Frecuencia</i>	<i>Porcentaje</i>	<i>Porcentaje Válido</i>	<i>Porcentaje Acumulado</i>
Gertukoa/pertsonala/konkretua	1	265	59,95	59,95	59,95
Orokorra/kolektiboa	2	177	40,05	40,05	100,00
<i>Total</i>		442	100,0	100,0	

Eskaeraren izaera * Eskaeraren gaia [recuento, fila %, columna %, total %].

<i>Eskaeraren izaera</i>	<i>Eskaeraren gaia</i>											<i>Total</i>
	Osasuna	Azpiegiturak eta garraioak	Arauk eta justizia	Ingurumena eta landa politika	Segurtasuna eta berdintasuna	Ekonomia eta fiskalitatea	Hezkuntza eta kultura	Hizkuntza politika, euskara	Informazioa eta gardentasuna	Etxebizitza, enplegua eta prestazioak	Beste batzuk	
Gertukoa/pertsonala/konkretua	36,00	27,00	33,00	8,00	5,00	8,00	39,00	16,00	56,00	19,00	18,00	265,00
	13,58%	10,19%	12,45%	3,02%	1,89%	3,02%	14,72%	6,04%	21,13%	7,17%	6,79%	100,00%
	50,00%	69,23%	67,35%	50,00%	38,46%	36,36%	60,00%	55,17%	74,67%	57,58%	62,07%	59,95%
	8,14%	6,11%	7,47%	1,81%	1,13%	1,81%	8,82%	3,62%	12,67%	4,30%	4,07%	59,95%
Orokorra/kolektiboa	36,00	12,00	16,00	8,00	8,00	14,00	26,00	13,00	19,00	14,00	11,00	177,00
	20,34%	6,78%	9,04%	4,52%	4,52%	7,91%	14,69%	7,34%	10,73%	7,91%	6,21%	100,00%
	50,00%	30,77%	32,65%	50,00%	61,54%	63,64%	40,00%	44,83%	25,33%	42,42%	37,93%	40,05%
	8,14%	2,71%	3,62%	1,81%	1,81%	3,17%	5,88%	2,94%	4,30%	3,17%	2,49%	40,05%
Total	72,00	39,00	49,00	16,00	13,00	22,00	65,00	29,00	75,00	33,00	29,00	442,00
	16,29%	8,82%	11,09%	3,62%	2,94%	4,98%	14,71%	6,56%	16,97%	7,47%	6,56%	100,00%
	100,00%	100,00%	100,00%	100,00%	100,00%	100,00%	100,00%	100,00%	100,00%	100,00%	100,00%	100,00%
	16,29%	8,82%	11,09%	3,62%	2,94%	4,98%	14,71%	6,56%	16,97%	7,47%	6,56%	100,00%

Valid cases = 442; cases with missing value(s) = 45.

<i>Variable</i>	<i>N</i>	<i>Media</i>	<i>Desv Std</i>	<i>Mínimo</i>	<i>Máximo</i>
Erantzun-denbora egunetan	397	13,45	29,32	,01	365,00